

Artikulu hau erabiltzeko jatorrizko iturria eta web-orria aipatu behar dira.  
[www.golden5.org](http://www.golden5.org) web-orriko informazio guztiak copyright eskubideak  
betetzen ditu.

# GOLDEN ARLOAK

## 1.- IKASGELAREN KUDEAKETA

Marla JosE Lera, Knud Jensen eta Frode Josang, (2007)

### Aurkibidea:

GOLDEN ARLOAK .....	
Ikasgelaren kudeaketa eta ikasgelako portaera .....	1
Nola ulertzen dugu ikasgelako lidergotza?.....	3
Golden5: funtsezko urratsen proposamena .....	5
..... Hasieran .....	6
Harremanak eta kontrola .....	7

### **Ikasgelaren kudeaketa eta ikasgelako portaera**

"Ikasgelaren kudeaketa"ren definizioak asko eta era askotakoak dira, baina denek biltzen dituzte irakasleek ordena jartzeko, ikasleen arreta erakartzeko edo haien lankidetzara eragiteko erabiltzen dituzten ekintzak (Emmer and Stough 2001) Gaur egungo Ikasgelaren Kudeaketari buruzko ikerketak 1970ko Jacob Kouninen eta bere kideen eragin handia du.

Kouninek eredu psiko-ekologikoa jarraitzen du, ingurugiroaren ezaugarrietan eta horiek haurren portaeran duten eraginean oinarritzen dena, alegia. Irakasleen zenbait portaera eta eskola-saioren ezaugarriak zehaztu eta ikasleen portaera hoberekin lotu zituen:

- 1) *(e)an egotea* edo parte-hartzea – Ikasgelari eta prozesu pertsonalei arreta handia eskaintzea. Une oro zer gertatzen ari den jakitea.
- 2) *Gozotasuna* edo egoera larrietan behar bezala erantzutea, eta ikasgelako prozesuak ondo doazela ziurtatzea.
- 3) *Rol aniztasuna* edo aldi berean gauza asko egiteko trebetasuna.

- 4) *Aldatzea eta* taldeari erreparatzea, zerbait ez doala ondo antzeman eta aldatzeko eta berrantolatzeko gai izatea.

Kouninek, gainera, jakin nahi izan zuen ohiko ikasleekin funtzionatzen zuten “ikasgelaren kudeaketa” estrategia horiek ikasle “disruptiboekin” ere ondorio berdinak izango ote zituzten (Kounin, 1970). Emaitzak oso onak izan ziren, eta, ikasleak benetan gogotsu eta hobeto kudeatuta zeuden Kouninek ezarritako ezaugarriak betetzen zituzten irakasleekin.

Ikerketa horiek eta emaitzek interesgunea aldatzen lagundu zuten, eta kudeaketa-estrategia “erreaktiboan” ikerketa egitekin kontrol-estrategia “prebentiboak” ikertzera pasatu ziren, arazoak aurreikusteko nola jokatu jakitera, alegia. Modu berean, ikerketen oinarria irakasleen izaeraren ezaugarriak izatetik, kontrol-estrategikoak eta inguruneak, eta gure trebetasunak haietan eragiteko duten garrantzia nabarmentzera pasatu ziren.

Ikasgela ikasleek zein irakasleek egunero estres handia jasaten duten leku bat da. Nordahlen iritziz, irakasleek ikasketa-egoeran eragiten duten lau eratako jokaerei egin behar die aurre ikasgelan (Nordahl, 1998)

- a. Irakasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragiten duten jokaerak, hau da, ikasleei eta irakasleei arreta galarazten dietenak: distrakzioak, berriketa (marmarra), eta abar. (ikasleen %30 eta % 60 bitartekoa da tarteka edo aldizka horrelako jokaera duena)
- b. Bakardadea, lotsa, depresioa eta harremanik eza biltzen dituen gizartetik isolatzea (%10 eta %30 bitartekoa)
- c. Portaera oldarkorra, gatazkak sortzea, eraso, aurkakotasuna, ikasgelako erregela eta arauetikiko desafioa (%12 eta %30 bitartekoa)
- d. Arauekiko haustura eta portaera kriminala, kideen arteko eskola-jazarpen larriak, lapurreta, indarkeria, eskola hutsegiteak, eta abar (%1 eta %2 bitartekoa)

Irakasle multzo handi batek jasaten du egunero ikasgelako arazo-portaerekin loturiko presio gogorra, sentimendu pertsonaletan eta irakasle-lanean eragitera iristen dena.

Ulegarria da irakasleei ikasgelako portaera hauek ez gustatzea, baina aldi berean, badira hobeto aurre egiteko estrategiak. Ikerlariak diote bakoitzak nori leporatzen dion gertaera dela estresa areagotzeko arrazoia, eta, askotan irakasleek bere egiten dituztela arrazoi horietako batzuk. Horietako bat izango litzateke irakasleen aitzindaritarako gaitasuna probatzen dela ikasgelaren aurrean. Beste arrazoi bat litzateke irakasleek beren langintzarako gaitasun eta kontrolik eza sentitzen dutela orokorrean.

Hirugarren arrazoia litzateke irakasleek askotan portaeraren arazoa bere zintzotasunaren eta balioen aurkako eraso pertsonaltzat hartzen dutela.

Portaera horiek dituen ikasgela batek sortzen duen estresa kontrolatzeko beharrezkoak dira osasun mental ona eta kalitatezko hezkuntza. Roland jaunak, Norvegiako Stavangereko Unibertsitateko irakasleak, irakasleriaren prozesuei eta ikasgelako egoera larriak gainditzeko duten moduari garrantzi handia ematen die. Bere ikerketetan, estresatuak dauden irakasle guztiek azaltzen dituzten bost ezaugarri nagusi aipatzen ditu; honako hauek dira:

1. Zailtasunak dituzte desordenari eta egoera gatazkatsuei aurre egiteko .
2. Zailtasunak dituzte ikasle arruntak aurrez aurre jartzeko.
3. Zailtasunak dituzte ikasleen ikuspuntutik ikusteko.
4. Gaitasun falta dute ikasgelan jarduerak antolatzeko, eta irakastaldi on bat planifikatzeko.
5. Ez dira naturalak eta umore-sena gutxi erabiltzen dute.

Aitzitik, Roland jaunak dio ikasgelako kudeaketan trebeak diren irakasleak maiz izaten dituztela kalitate handiko prozesuak beren ikasgeletan, eta ikasgelan arazorik ez duten irakasleek honako hiru ezaugarri hauek azaltzen dituzte:

1. Aurreikusterraza eta argia izatea.
2. Egoera gatazkatsuak kudeatzen jakitea.
3. Gai izatea bere estrategia eta erreakzioei buruzko hausnarketa egiteko eta haiek aldatzeko.

Horrela, bada, ikasgelaren kudeaketa ez da ikasgelan martxan jartzeko estrategia eta teknika kontua bakarrik, beste arlo garrantzitsu bat eskatzen du, irakasleen jarrera hain zuzen ere. Haien usteak eta egoeren interpretazioek eragina izango dute estres-mailan eta, aldi berean, ikasgela hobeto kudeatzeko gaitasun eta trebetasunetan, eta arazoak areagotu egingo dira

## Nola ulertzen dugu ikasgelako lidergoa?

Irakasleek hainbat ikuspegi dituzte ikasgelako lidergoa erabiltzeari dagokionez. Nagusiki bi dimentsiotan sailkatzen dira: estrategikoa eta komunikatzailea. Irakasle bat “estrategikoa” izan daiteke; horrek esan nahi du garrantzitsuena saioa planifikatu duen bezala betetzea izango dela, ikasleen galderek eta esperientziek ez dute behar adinako garrantzirik, ezarritako ordena aldatzeko. Beste dimentsioa “komunikatzailea” da, ikasleekin hitz egin, ulertu eta inplikatzeko interes berezia duena. Bi dimentsioak, neurri batean edo bestean, biltzen dira irakasle berarengan.

Bestelako zenbait sailkapen egin dira dimentsio horietan oinarriturik, bereziki erabilitakoa da “ikaslearengan oinarritutako” ikasgelako lidergo-kudeaketaren eta “irakaslearengan oinarritutakoaren” arteko bereizketa egiten duena

Bere kudeaketa ikasgelako elkarrizketa eta harremanetan oinarritzen duen irakasleari “ikasleei begirako ikasgelako liderra” dei diezaiotz. Irakasleekiko eta ikasleen arteko elkarrekintza ezinbestekoa da, eta bere helburu nagusia hiritar burutsuak sortzea litzateke. Era horretako irakasleek lantaldeetan elkarri lagunduz egiteko jarduera asko erabiltzen dituzte. Irakasleen jarrerak eta balioak zein ikasgelako giroa oso garrantzitsuak dira.

Beste muturrean egongo lirateke beren lidergoa araudi eta errutinetan oinarritzen duten irakasleak, ikasgelan ikasleak bete beharreko rola nabarmendu, kontrolatu eta monitorizatzen duena, rol hori isilik egotea, irakasleari entzutea eta bere jarraibide eta aginduak jarraitzea delarik. Irakasleria aktiboa da, ikasleria pasiboa, kasu horretan “irakasleei begirako ikasgelako liderra” deituko genioke. Irakasleak ikasleei eduki berriak aurkezten dizkie; ondoren, galderak egiten ditu azaldutakoa ulertu duten jakiteko, eta azkenik ikasleek banakako lanak egiten dituzte.

Interesgarria da hausnartzea egiten dugunaren eta besteek gure portaeraren bidez ulertzen dutenaren artean dagoen diferentzia nabarmenari buruz. Zenbait irakasleek, nahiz eta oso ziur egon ahoz adierazten ari diren mezuaz, oso bestelakoa adierazten dute maiz beren portaeraz. Irakasleari begirako liderrak ozen hitz egiteko joera du, oihu egiten du, eta askotan ultimatuma ematen du bere ahalmena edo estatusa agerian jartzeko, irakasleak esateko asko baitu; beraz, besteek entzun egin behar dute.

Irakasleari begirako liderra, sistematikoki ikasle bakoitzaren portaera txarra aztertzen duen irakaslea da. Arazoei hitz eginez heltzen die (harremanen bidez) eta ez du aurrez konponbiderik; dakiena soilik partekatzen du, eta ikasleek onartu eta ulertzen dute. Denek ulertzen dute zergatia eta egokitzat jotzen dituzte erabilitako estrategiak.

Kudeaketa- eta bestelako estrategia multzo bat martxan jartzeko, ikasgelako lidergoa ulertzeko modua garrantzitsua bada ere, are garrantzitsuagoa da egoera kontrolatzeko modua. Zentzu horretan, zenbait egilek

kontrolatzeko joera duenarenaren arteko continuum bat ezartzearekin

Kontrolik eza lidergo ahultzat hartzen da, eta ez ditu aurrez aurre jartzen ohizkanpoko portaera duten ikasleak. Horretarako arrazoiak, besteak beste, hauek izan daitezke: irakaslearen beraren ziurtasun eza, gaitasun eskasa edo ikasleekin “ospetsu” izan nahia. Hain lidergo ahul baten aurrean, ikaslerik nabarmenenek rol garrantzitsuagoa izango dute, eta ikastaldeak menderatuko du ikasgela.

Horren aurkako jarrera litzateke une oro dena monitorizatzen ari den irakasle gain-kontrolatzailearena. Xehetasun guztiak garrantzitsu bihurtzen dira, eta “portaera oker guztiak” ditu kontuan. Horrelako irakasleek estres kaltegarri handia eta ikasgelaren nahasmena sortzen dute. Muturreko jarrera “paranoia” izango litzateke, non irakasleak bere aurkako, gelaren kontrolaren aurkako edo irakaskuntza-prozesuaren aurkako erasotzat hartzen dituen portaera desegoki guztiak. Sarri bere onetik atera eta “turko-buruak” edo “petxeroak” bilatu ohi ditu ikasleen artean.

Bi jarrera horien artean kontrol-joera daukagu, irakasle ziur batena, hau da, estrategia argiak erabiliz irakaskuntza-giro on bat eta ikasgelarekiko zein ikasle bakoitzarekiko harreman eta sentimendu onak sortzeko gai den irakaslearena.

Ikerketa ildo beretik, Lewisek beste jarrera-sailkapen bat egiten du; hiru eredu teoriko hauetan banatzen dena: esku-hartzailea, elkarrekintzatzailea eta ez esku-hartzailea (Lewis, 1998). Lehenak kontrola eta zaintza islatzen ditu; ikuspegi horrek adierazten digu ikasleak ez direla gai beren burua kontrolatzeko. Beste bi ikuspegiak "ahotsa izateko" aukera ematen diete ikasleei.

## Golden5: urrats nagusien proposamena

Berriro hasi da ikasgelaren kudeaketa "heziketarekin" eta "ezaugarri pertsonalekin" lotzeko joera, hala nola zentzuduna eta arduratsua izatea harremanetan (axola zaiola, alegia) (Weinstein, 1998), moraltasuna (portaera etikoa) (Hansen, 1993) edo portaera-estiloa (jokamoldeak) (Richardson eta Fallona, 2001).

"Estilo edo jokamoldeak" irakasle baten portaera birtuosoak edo ikasgelaren testuinguruan agerian jarritako izaera-ezaugarriak izango lirateke. Virginia Richardonek irakasleen estiloen jarraitutasuna eta aldaketak aztertu zituen. Bere ikerketan azaleratzen diren ezaugarri intelektual eta moralen arteko batzuk honako hauek dira: zuzentasuna, begirunea, hezkuntza-helburuekiko konpromisoa, eta norberaren teoria eta praktiken azterketa kritikoa.

Zentzu horretan zenbait saiakuntza burutu dira, irakaslearen laguntza emozionalarekin eta horrek ikasleengan duen eragin onarekin eta irakasleek izan beharreko bost faktore garrantzitsuenekin loturiko alderdiak barne. (Bru, Stephens etab., 2002):

- (1) Ikasleek emozio-oinarri ziuerra eta sendoa aitortzen dioten irakaslea.
- (2) Bere gaiaren irakaskuntzan trebea edo aditua den irakaslea.
- (3) Ikasleei beren prozesuetan eragiten uzten dien irakaslea.
- (4) Ikasgelako jarduerak orokorki gainbegiratzen dituen irakaslea, eta
- (5) Ikasgelaren kontrol orokorra izatetik kutunkeriari gabeko maila pertsonalera pasa daitekeen irakaslea.

Ildo berean, Norrisek Ikaskuntza-metodo Soziala eta Emozionala garatu du (Norris, 2003), eta Israelgo Zipora Shechtmanek, irakaskuntza afektiboa erabiltzen du ikasgelaren kontrola indartzeko. (Shechtman eta Leichtentritt, 2004).

Era berean, gure ikasleetako errealitatek abiatuz, hau da, errealitate zaila, konplexua; ikasgelan denok agintzen dugula kontuan izanik, beraz, ikaslearengan oinarrituriko ikuspegia dugula, zeinaren arabera ikasgela gune partekatua eta denok elkar errespetatu behar dugun lekua dela, uste dugu badirela zenbait gai, ezinbestekoak direnak, ikasgelaren kudeaketa-trebetasunak nabarmen hobe ditzaketenak eta benetan hobetzen dituztenak.

Arlo horretan lagundu nahian, zenbait urrats proposatzen ditugu, gure ustez ikasgela egituratzen duten hiru sailetan banaturik; alde batetik egitura, arauak, errutinak, gela-guneari ikasgela izaera ematen dioten ez-ahozko kodeak; bestetik, gune horretan garatzen diren harremanak eta nola kontrolatzen den harreman horien elkarreragina, eta azkenik, zein balio transmititzen diren eta nola abiarazten diren ikasgelako arazoak konpontzeko. Ikasgelako ikasketak kudeatzeko trebetasunak hobetzeko zenbait alderdiei buruzko adibide zehatzak ematen ditugu.

## Hasteko

Zein eratako trebetasunak erabiliko ditu ikasgelaren arreta bereganatzeko, adibidez, ikasgelan sartzean? Zenbait irakaslek iritsi eta ahotsa goratzen dute; beste batzuk isilik geratzen dira, eta ikasgela lasaitu arte itxaroten dute; beste batzuek ikasleei errieta egin edo sermoia botako diete, zenbaitek estrategia argiak erabiliko dituzte, adibidez, hiru txalo ematea edo bestelako seinaleren bat. Egoera honetan irakasle bakoitzak egiten duena oso garrantzitsua da, estresa eta nahasmendua areagotu edo ikasgela kontrolatzen lagundu baitezake, eta hori bezain garrantzizkoa da modu kontzientean eta denbora trinkoan egitea, komunikazio-sistema bihur dadin.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Progresibotasuna: portaeraren kontrol-sistema bat eratzea, taldearen arreta erakartzeko ez-ahozko kodeak erabiliz (adibidez, eskuak altxatzea), espero den portaera jakinaraztea, harreman-eredua izanik (adibidez, ikasleengan hurbilduz, baxu hitz eginez) etab.*

Taldearen arreta eskuratu ondoren, garrantzitsua da portaera bikainenak goraiatzeko, gertatzen ari direlako, edo indartuko ditugunak izango direlako, eta baita gaurko saiorako nahi ditugunak. Espero diren portaerak gogoraraziko dira, ez ezabatu nahi ditugunak.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Arreta: arreta jarri eta ikasgelako portaera onak goraiatzeko, berriro gerta daitezkeen nahi badugu.*

Ikasleak lanean ari direnean, azalpen bat entzuten edo zereginetan, funtzeskoa da kontzentratzen lagunduko dien giroa eta lanean jarduteko ahalik eta baldintzarik onenak sortzea. Horregatik da hain garrantzitsua jarduera-jarioa eta bere jarraipena, hori baita helburu nagusia. Zarata dagoela esan beharrean, zarata iturriak gutxitzen saiatu beharko dugu.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Jariakortasuna eta jarraipena. Ez utzi portaera batengatik ikasgaia edo lana eteten, portaera okerra konpondu eta aldi berean klasearekin jarraitu nahian. Hona hemen erabili daitezkeen zenbait adibide: pertsonari begietara begiratzea, gatazka ahotsa altxa gabe konpontzea, eskuaz adieraztea, kontaktu fisikoa, hurbiltzea, etab*

Jarduera-aldaketa unetan trantsizio-uneak sortzen dira, eta oldartzeak eta ikasgelako arazoak errazago gertatzen dira. Une horietarako prestatuta egon behar dugu, eta ahalik eta azkarren eta modurik arinenean kudeatzeko jarduerak edo moduak pentsatu behar ditugu. Lehenagotik baliabideak prest edukitzeak, edo aginduak oso agerian, edo une batez arreta erakarriko dien jardueraren bat egiteko aukera izateak une horiek laburrago eta jasangarriago bihurtzen dituzte.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Burutsu izatea (Momentum): jarduerak eta aginduak segidako sekuentzia naturaletan antolatu dituelako ziurtasuna izan behar du.*

Azkenean saioa amaitzen da, baina ezinbestekoa da ixtea, sintesi- eta gogoeta-ariketa egitea, zer egin den ikasgelan galdetzeko, zer egon den ondo, zer ikasi den, zerekin geratu den gustura irakaslea, eta zein izango den hurrengo saioaren ardatza.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *finkatzea eta prospekzioak egitea: saio bat bukatzen ari denean, saioa finkatu eta hurrengo ikasgaia zein izango den adierazteko denbora antolatzean datza. Ikasleentzat garrantzizkoa da jakitea zer egin den eta zer ikasi den, zer egon den ondo eta zer ikasiko den hurrengo ikasgaietan.*

## Harremanak eta kontrola

Irakasleek ikasleen arteko harremanak kontrolatu ahal izateko estrategia batuk ezagutu behar dituzte. Estrategia horiek oso argiak izan behar dute, irakaslearekin ahozkoa ez den komunikazioa erraz dadin, partekaturiko keinu, seinale, edo ikurren bidez kontrola daitekeena.

Taldeak berak sortzen dituen arazoei aurre egiteko modu bat proaktibotasuna erabiltzea da.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Proaktibotasuna: Arazoak maila xumean konpontzea (pribatuan, baxu hitz eginez, ikaslearengana hurbilduz, eskola aurretik edo ondoren)*

*Ez-ahozko gakoak (keinuak)*

*Hizkuntza intzidentala*

*Tartetxo bat hartzea*

*Portaera bideratzea.*

*Arauk gogoratzea*

*Geldialdia, adostasun partzialak*

*Eskatu beharrean eskerrak eman*

Era berean, ikasgelaren kontrola ziurtatu behar du, ikasleen kontzentrazioari eutsiz, haiekin hitz eginez eta zuzenketatxoak eginez edo ohartxoak emanez.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Ikusizko Laguntza: Zenbait irakasleek gehiegitxo baliatzen dute irakaskuntzaren entzumen-ikuspuntua. Hala ere, denok dakigu zein garrantzitsuak diren ikusizko gakoak: idatz itzazu lana egiteko zure mezu edo agindu guztiak arbelean edo lan-orrian.*

Zenbat eta ikusizko gako gehiago izan, errazago egingo zaigu talde handian lan egitea, horretarako komunikazio-sistema sortzen ari garelako. Garrantzitsua da seinaleak, iragarkiak, arauak, eta baita lantzen diren gaien ikusizko erreferentziak.

Hobe da aurea hartzea esku hartzea baino; garrantzitsua da seinaleak ikustea, eta konturatzea noiz galdu dugun edo gal dezakegun kontrola. Une horretan ikasleak ez daude hain kontzentratuta, ez diote irakasleari entzuten, zarata gehiago ateratzen dute eta gelako estresa areagotu egiten da. Portaera espero duguna denean, prestatuta bagaude hobeto kudeatuko dugu; hori dela eta, garrantzitsua da kontuan izatea eguneko ordutegia, edo urte-sasoia. Taldearentzat garrantzizkoak diren gertakariak haren dinamikan eragingo dute; beraz, alferrik da alde batera uztea.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Aurea hartzea (Preactivity): Ikasgelan gerta litekeenari buruz pentsatu eta prestatuta egotea.*

Azkenik ezin badugu kontrola kudeatu, arreta berreskuratzeko unea da; horretarako ustekabeko zerbait egitea da onena (argia itzaltzea, mahaian esertzea, kapela bat janztea, musika jartzea, arbelean zerbait idaztea, ... ).

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Ustekabeko portaera azaltzea. Ikasleen jokabide-ereduak edo irakaslearen eta ikasleen artekoak aztertu eta espero ez den edo ohiko portaeratik kanpo dagoen zerbait egitea.*

Gatazken konponketari ekiteko ezinbestekoak diren zenbait urrats aurkezten ditugu.



Arazoak sortzen dituzten jokabideen aurrean, ahalik eta azkarren arazoari heltzea aholkatzen da; hau da, egoeraz jabetu eta ez pentsatzea denborak konponduko duela, ez baitu konponduko; ziurrenik gehiago okertuko du.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Une egokia aukeratu: Ahalik eta azkarren heldu behar zaio arazoa sortu duen jokabideari.*

Arazoak etengabe sortzen badira, komeni da Ikasgelako taldearekin batera konpontzen saiatzea, eta, adibidez, arau- eta eskubide-plan baten garapena proposatzea. Modu sinplean egin daiteke, eta helburua taldearen onerako arautu beharko lirakeen jokabideez jabetzea da.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Arau- eta eskubide-plan baten garapena. Bost arautan (ez gehiago) oinarrituriko plan bat adostu ikasleekin, betetzen saiatzeko. Lortu direnean saritzen da ( banaka edo taldean). Arauak bereganatu dituztenean, aldatu eta beste batzuk adosten dira. Ikusteko moduan egon behar dute. Eta egin beharreko zereginak edo eskuratu beharreko ohiturak gogoratzeko estrategia bat besterik ez da. Esan beharrik ez, irakasleek ere, ikasgelako kide direnez, arauak bete behar dituztela.*

*Arauren bat beteko ez balitz, taldeak demokratikoki erabaki beharko du zer egin hutsegitea eragindako ikasleekin portaera berriro bideratzeko. Biltzar-funtzionamendua erabili ahal izango dute.*

Portaera-arazo asko ematen badira, ziurtatu behar dugu gure erantzuna ikusitako arazoari egokitzen zaiola. Askotan arazoa handitu egiten dugu, prozesu horrek izan ditzakeen ondorioak kontuan hartu gabe; izan ere, beranduago “puztutako” arazo bati aurre egin beharko diogu, eta zailagoa izango da heltzea. Arazoak eragiten dituen jokabide baten aurrean, gogoratu behar dugu jokabidea dela beharbada zuzena ez dena, baina inoiz ez pertsona bera. Ikasleen ikuspuntutik , arazoaren garrantzia eta larritasuna guztiz beste modu batean neurtzen da. Gure aholkua arazoak txikiagotzea da, ahalik eta konponbiderik egokiena emateko. Zenbat eta hobeto zehaztu arazoa , errazago izango da konpontzea, “elur-pilota” ondoriorik sortu gabe, zenbaitetan gerta daitekeena.

**FUNTSEZKO URRATSA:** *Egokitzapena: Ziurtatzea norberaren erreakzioak zentzuzkoak diruditelako portaera gatazkatsuen aurrean. Garrantzizkoa da gatazka ez handitzea, eta hasieratik handia balitz, maila jaiste, irribarretsu, eskerrak emanez eta begietara begiratuz. \_\_\_\_\_*

Ezinbestekoa da ikasleei ordezkoko jokabide bat eskaintzea. Horretarako garrantzizkoa da arazo baten ondoren positiboki jokatzeko, eta gertaeraren behin-behinekotasunari eta beste era batean egiteko konfiantzari buruzko itxaropen onak sortzea.

*FUNTSEZKO URRATSA: Erreaktibotasuna: eskola-saioa bukatu ondoren ikaslearekin hitz egin eta hurrengo saioan zer egin erabakitzea, ordezeko portaerei buruz hitz egitea edo portaera okerrak jarraituz gero irakasleek izan dezaketen erreakzio/ondorio erlazioaren berri ematea.*

## **AIPAMENAK:**

- Bru, E., M. Boyesen, et al. (1998). "Perceived Social Support at School and Emotional and Musculoskeletal Complaints among Norwegian 8th Grade Students." *Scandinavian Journal of Educational Research* 42 (4): 339-353.
- Bru, E., P. Stephens, et al. (2002). "Student's Perceptions of Class Management and Reports of Their Own Misbehavior." *Journal of School Psychology* 40 (4): 287-307.
- Dreikurs, R., B. Grunwald, et al. (1982). *Maintaining sanity in the classroom. Classroom management techniques* . London, Taylor & Francis Ltd.
- Emmer, E. eta L. Stough (2001). "Classroom management: a critical part of educational psychology, with implications for teacher education." *Educational Psychologist* 36 (2): 103- 112.
- Hansen, D. T. (1993). "The moral importance of teacher's style." *Journal of Curriculum Studies* 25 (5): 397-421.
- Holton, S. (1999). "After the eruption: managing conflict in the classroom." *New Directions for teaching and learning* 77 : 59-69.
- Kounin, J. (1970). *Discipline and group management in classrooms* . New York, Rinehart and Winston.
- Lewis, R. (1999). "Teachers' support for inclusive forms of classroom management." *Inclusive education* 3 (3): 269-285.
- Newhouse, R. and M. Neele (1993). "Conflict resolution: an overview for classroom management." *International Journal of Educational Management* 7 (3): 4-8.
- Nordahl, T. (1998). "Er det bare eleven?" *Nova Rapport* 12 .
- Norris, J. (2003). "Looking at classroom management through a social and emotional learning lens." *Theory into practice* 42 (4): 313-318.
- Ogden, T. (1987). *Atferdspedagogikk i teori og praksis*, Universitetsforlaget.
- Richardson, V. and C. Fallona (2001). " Classroom management as method and manner." *Journal of Curriculum Studies* 33 (6): 705 - 728.

Rogers, W. (2002). Classroom Behaviour. London, Paul Chapman Publishing.


Roland, E. (1991). "Norsk skoleblad." 28.

Shechtman, Z. and J. Leichtentritt (2004). "Affective teaching: a method to enhance classroom management." European Journal of Teacher Education 27 (3): 323-333.

Weinstein, C. S. (1998). "I want to be nice, but I have to be mean: exploring perspectives of teachers' conceptions of caring and order." Teaching and teacher education 14 (2): 153-164

Artikulu hau jatorrizko iturria eta web-orria aipatuz erabil daitezke.  
[www.golden5.org](http://www.golden5.org) web-orriak copyrighta du.

## GOLDEN ARLOAK



### HARREMANAK SORTZEN

Joanna Szymanska eta Joelle Timmermans (2007)

#### Aurkibidea:

Irakasle eta ikasleen arteko harremana .....	1
Ikasleak eta irakasleak arriskuan .....	2
Ikasle eta irakasleen arteko harremana irakaslearen karrera profesionalean zehar .....	3
GOLDEN5: funtsezko urratsen proposamenak.....	5

#### Irakasle eta ikasleen arteko harremanaren garrantzia

Zaintze-harremanek “babes-eragile” garrantzitsu modura funtzionatzen dute, eta neska-mutilengan erresilientzia eratu eta garatzeko oinarria dira. Werner and Smith's-en ikerketak(1989), 40 urte baino gehiago luzatu zenak, aurkitu zuen erresilientzia handieneko pertsonak (egoera traumatikoetatik indartuta ateratzen diren pertsonak) aipatzen zutela beren bizitzan eredu positiboak izan zituztela, eta ez zirela beren familia-inguruneak izan. Askotan, eredu hori irakasle gustukoena zen, zeina adingabearentzat irakaslea izateaz gain, konfiantzazko eta identifikazio pertsonalerako ereduak izan zen. Gainera, irakaslearekiko zaintze-harremanak ikaslearengan arrakasta izateko eta aurrera egiteko motibazioa sortzen du.

Klem eta Connel-en ikerketek (2004) lotura bat erakusten dute irakaslearen laguntzaren, ikaslearen inplikazioaren eta eskola-errendimenduaren artean, lehen zein bigarren hezkuntzan. Ikastetxearekiko konpromisorik handiena adierazten duten ikasleak beren irakasleengan beraiekiko interesa ikusten dutenak dira, ondo egituraturako ingurune akademikoak eta itxaropen handiak, argiak eta zuzenak dituzte. Irakasleengandik laguntza jaso zuten bigarren hezkuntzako ikasleek hiru bider joera handiagoa azaldu zuten konpromisoa hartzeko. Nerabeek irakaslea busti egiten dela nabaritu behar dute, ezagutzen dituela eta beraietaz arduratzen dela. Autonomia-prozesuan ere laguntza behar izaten dute.

Hitz batean, egileek hiru eskola-erreforma eredu proposatu zituzten, gazteentzako sormen-ingurune pertsonalizatuak sortzeko estrategiak garatuz.

Noamek eta Fiorek (2004) beren azterketan azaltzen dute zein garrantzitsuak diren pertsonen arteko harremanak nerabeen hazkuntza, ikaskuntza eta sendaketarako (prozesu terapeutikoak). Esparru akademikoko arrakastarik handieneko ikastetxeak ikasleek beren irakasleekiko lotura eta haiengandiko errespetua sentitzen dutenak dira. Helduekin (gurasoak ez direnak ) harreman ona izateak kide edo partaide sentiarazten ditu gazteak; nortasun kohesiboa sortzen eta trebetasun psikologikoak eta sozialak ikasten laguntzen die. Garapenaren praktika eta teoriak diote irakasleekiko harreman onak bereziki esanguratsuak direla desabantaila sozioekonomikoak, emozionalak eta hezkuntzaren ingurukoak dituzten ikasleentzat. Harreman horien bidez alda dezakete bere bururekiko eta besteekiko duten ikuspegi txarra, nahiz eta familia ezkor batean sortuak izan. Aipatutako egileen ustez, irakasleek ez dute ulertzen, sarritan, “harreman positibo baten eraketa”ren esanahia

Stuhlmanek, Hamrek eta Piantak ere (2002) iradokitzen dute ikasleen arazo asko, adibidez, motibaziorik eza, konpromisorik eza eta portaera txarra, aipatutako laguntza ezaren ondorio direla, irakaskuntza ertainean kudeatzeko oso estilo kontrolatzailea eta diziplina-politikak erabili izanaren ondorio alegia. Ikerketa luzeak egin ondoren, azpimarratzen dute zein garrantzitsua den heldu zein nerabeentzat onuragarriak izango diren harreman eusgarriak, ikasle eta irakasleen arteko zaintze-harremanak sortzea.

## **Ikasleak eta irakasleak arriskuan**

Stuhlmanek, Hamrek eta Piantak (2002) adierazten dute estrategia intentsiboek hobetu ditzaketela zenbait ikasle eta irakasleen arteko harremanak, “arriskuan” egon daitezkeenak alegia. Arriskupean leudekeen ikasleen artean egon daitezke diziplina-arazoak dituztenak; bereziki etxean estres-egoerak bizi dituztenak, edo besteen diskriminazioa jasaten dutenak izaten dira. Bestalde, arriskupean egongo lirateke lehen lan-urtea duten irakasleak, ikasgeletan ikasle bereziki zailak dituztenak edo “burnout” sindromea” (erreta dagoenarena) dutenak.

Arriskupean dauden ikasleekin lanean ari diren irakasleek argi izan behar dute ikasleengan dituzten pentsamendu edo sentimenduek eraman ditzaketela ikasleen beharretatik urruntzera ala behar horiek gutxitzera.

Ikasleen ahalmenaz zenbat eta gehiago jabetu, irakaslea gai izango da aldaketa emankorrak egiteko beren arteko elkarreraginean, eta modu horretan ahalmen hori handitu eta garatu egingo da. Adibidez, Cleo Eulau Zentroak, Palo Altoko (Kalifornia) irabazi asmorik gabeko agentzia batek, langileak bidaltzen ditu lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetara osasun mentalean jardun dezaten, ikasgelez arduratzen dira eta harremanetan daude irakasleekin, batera lan eginez pertsonen arteko harremanen inguruko gaietan, hala nola:

- Ikasleen erronka-portaerak ulertzea eta aurreikustea, portaera horiek ez dezaten harreman arrakastatsuetan eraginik izan
- Ikasleen trebetasunetan sinesteko gaitasuna eta kontzientzia sustatzea.
- Ikasleei itxaropenik handienak helarazteko moduak garatzea.
- Trebetasun pertsonalez jabetu eta haiekiko sinesmena areagotzea.
- Irakasleekin banaka biltzearen garrantzia eta boterea.

Zenbait irakasleri laguntza ematea ikasle guztientzat izaten da mesedegarri, nahiz eta laguntzaren helburua ikasle jakin batekiko harremana izan. Ikasgela ikasleen eguneroko lan-testuingurua izanik, hura lana erraztuko digun gune egokiago bihurtzeak bat-bateko ondorioak eta iraunkorrak izan ditzake arretari, motibazioari eta portaerari dagokienean.

Ikasle eta irakasleen arteko harreman positiboak dira baliabiderik garrantzitsuenak hezkuntza-jarduera arrakastatsua garatzeko, ikastetxe barruan zein kanpoan. Harreman horiek guztiz garrantzitsuak dira autokonfiantzaren garapenerako eta nerabezaroko erronkei aurre egiteko trebetasunak eskuratzeko.

## **Ikasle eta irakasleen arteko harremana irakaslearen ibilbide profesionalean zehar**

Brekelmansek, Wubbelsek eta Tartwijkek (2005) luzetarako ikerketa egin zuten irakaslearen esperientziak nolako eragina zuen ikasleekiko harremanen sorreran eta mantentzean aztertzeko. Emaitzek 343 irakasleen pertzepzioei buruzko datuak jasotzen zituzten, urteetan beren lan-esperientzia jarraitu ondoren, eta baita milaka ikasleren pertzepzioari buruzkoak ere. Irakaslearen eskarmentua bere harremanetarako hurbiltasunarekin eta eraginarekin alderatu zuten. Emaitzek adierazi zuten irakasleen autopertzepzioak eta ikasleen pertzepzioak egonkorrek zirela. Bien hurbiltasun pertzepzioa eta irakasleen eragina, batzaz beste, irakasle-eskarmentuko lehen sei urteetan hazi egiten zen (batez ere lehen hiru urteetan). Ikasleen pertzepzioaren arabera, irakasle gazteagoak enpatikoagoak, toleranteagoak eta malguagoak dira. Aldi berean, pertsonen arteko harremanetarako estilo zorrotzeko irakasleek eragin gutxi dute.

Irakasleen hurbiltasuna murriztu egiten da ibilbide profesionalaren amaieran. 20 urte baino gehiago lan egiten duten irakasle askok enpatia galdu eta zorrotzagoak bihurtzen dira.

Egileek diote irakasle gazteek ez dutela oraindik sortu portaera-multzo egoki bat , ezta lidergoa hartzeko ezagutza ere. Arazo gehiago izaten dituzte gelako kontrola eta diziplinarekin. Baina eskarmentu handiko irakasleek ere arazoak izaten dituzte zenbait ikaslerekin; ez ulertzeaz gain onartzen ez duten bizimodu-estilotik urrunduta egiten dira. Irakasteko metodo pasiboak erabiltzen dituzte eta ez daude ados ikasleen jarduerarekin eta ardurekin. Eskaera hain handia izateak eta ikasleekiko lotura ahulak ikasleen protesta sortu eta komunikazio okerreko kiribil batean murgiltzea ekar lezake.

Hubermanek (1993) irakaslearen lan-harremanetako segida deskribatu zuen:

1. – 1. Fasea (1-3 urte) "bizirik ateratzea eta aurkitzea" izenekoak. Irakaslea diziplina eta kudeaketari loturiko "reality shock" batean bizi da; permisibitatezko zorrotzgia izatera pasatzen da, saiakuntza eta hutsegite bidez ikasten du.
2. – Egonkortasun fasea (4-6 urte). Irakasleak irakasteko nahiko trebetasun eskuratu ditu eta jadanik pentsa dezake gelako liderra eta irakasle eraginkor bat dela.
3. – Metodo berriak esperimendatzeko fasea (7-18 urte)
4. – Sosegu- edo kontserbadorismo-fasea (19 -30 urte). Azken fase horri aldentze-fasea ere deitzen zaio. Lanarekiko inplikazioaren jaitzierak ikasleen bizimoduarekiko interesa gutxitzea ekar lezake.

Idazle guzti horiek azpimarratzen dute, irakaslearen lan-ibilbidean zehar aldaketa asko gertatzen badira ere, jarduerarekin profesionalak garatzea oso lagungarri gerta daitekeela une jakinetako behar berezietarako. Lehen eta azken fasea bereziki garrantzitsuak direla dirudi. Irakaslea hasiberria izan ala lanbide luzekoa izan, prestakuntza eta laguntza ezinbestekoak dira irakasle-ikasle harremanetarako. Irakasle berriek jarrera nagusia zein izan behar duen ikasi behar dute, eta ez hainbeste ikasleei nola jarri mugak. Ikasleei nola eman askatasuna eta ardura ikasteak irakasleriaren lehentasunezko prestakuntza izan beharko luke. Gainera, arauak eta irizpideak modu ez probokatzaillean sortzen ikastea erabat baliagarria izan liteke..

## GOLDEN5: Funtsezko urratsen proposamenak

Laburpen gisa, ikasleekin elkarrekiko errespetuan eta inplikazioan oinarrituriko harreman on eta ziur bat eratzea gomendatzen dugu. Ikasleekiko harreman onak heldu zein nerabeentzat izango dira mesedegarriak, eta eragina izango dute ikastetxeko eta gelako gizarte-giroan.

Harreman positiboak oso tresna garrantzitsuak dira ikasleen arrakasta lortzeko ikastetxean zein ikastetxetik kanpo. Argi dago irakaslearen rola erabakigarria dela, ikasketetan arrakastarik handiena duten ikastetxeak ikasleak irakasleen errespetua sentitu eta haiekin bat egiten dutenak baitira.

"Golden" irakasle bat izateko garrantzitsua da ikasleen ezaugarriak ezagutzea, haiekin egonda eta elkarrekin denbora igaroz ondo egotea, ikasle bakoitzaren mundua interesatzen zaiola eta ulertzen duela azaltzea (gaitasun kulturalak). Aipatutakoak zenbait ezaugarri garatzen ditu, adibidez, adiskidetsua izatea, emozionalki egonkorra, txeratsua eta nolabait karismaduna izatea.

Oinarrizko lau gaitasun proposatzen ditugu eta funtsezko urrats batzuk denontzat, bereziki gazteentzat, ingurune eroso eta pertsonalizatuak eratzeko:

- **1. Gaitasuna.**- Interesa eta hurbiltasuna irakaslearen eta haurraren artean sortzen den goxotasun eta komunikazio irekian islatzen da. Interesak eta ardurak ikaslearen autoestimua garatzen laguntzen du. Irakaslearentzat garrantzitsua da bere gaitasunak eta ezaugarriak onartzea eta begirunea agertzea. Ikasleek hobeto erantzuten dute haienganako kezka eta interesa azaltzen bazaie.
- Haurraren izena erabiltzea berarekin hitz egiten denean.
- Gelatik kanpo ikasle batekin topo egitean, irribarre egitea eta onarpena erakustea
  - "Golden unea" erabiltzea, haurrari interesatzen zaigula adierazteko eta "eskolaz kanpoko" gaiei buruz hitz egiteko.
- Ikasleak esandako gauzak gogoratzea. Haiek berriro egin eta interesa azaltzea.
- Gutxienez ikasgai bakoitzean, behin, haurrari "jaramon egin" diola ziurtatu ( begiratu, haren ondoan egonda, positiboki indartuz, lagunduz, etab.)

**2. Gaitasuna.**- Ikasleari laguntzeak esan nahi du banakoen arteko desberdintasunak onartzea (sozialak eta akademikoak), goi mailako errendimendu-itxaropenak izatea, adorea eta feed back positiboa ematea. Laguntza ardurari eta interesari lotuta dago.. Nerabeek ikusi behar dute irakasleak beraiekin bat egiten duela, ezagutu eta beraiengatik kezkatzen dela, baina autonomia-maila jakin bat emango dion laguntza ere behar du.

- Egunero eta ikasgai guztietarako "orri txuria"ren estrategia erabiltzeak aukera berri bat eskaintzen du.
- Haurrari feed back eraikitzailea eta ona ematea.



**3. Gaitasuna.-** Portaera egoki bat moldatzea. Garrantzitsua da konturatzea irakasle eta ikasleen arteko harremanetan botere-desberdintasun argiak daudela. Irakasleak ingurune bat sortu behar du, non arauak, argi eta garbi, gizarte-portaera egokiei lotuak dauden, eta portaera horiek erakutsi, sendotu, eta moldatu behar ditu (informazio gehiago Golden 1. Arloa. Gelaren Kudeaketa). Giro horrek irakaslea eta ikaslearen arteko harremana hobe dezakeen sendotasun, egonkortasun eta iragarri daitekeelako sentsazioa emango dio ikasleari.

- Gizarte-profilak, ikasleen ezaugarriak, lan onak edo portaera zuzena gelako guztien erreferentzia-puntutzat erabiltzea.

**4. Gaitasuna.-** Gelan harreman onak eta elkarreragin egokiak eraikitzeke trebetasunak garatzea. Izan ere, ikasleekiko harreman gatazkatsu batek eskola- adaptazio arrakastatsua galaraz dezakeenez, ikaslearen eta irakaslearen gizarte-gaitasunen araberako harreman eraikitzaileak behar dira. Garrantzitsua da irakaslearentzat (eta ikaslearentzat ere bai) oinarritzko komunikazioko eta gatazkak konpontzeko trebetasunak garatzea. Arrisku handiko ikasleekin jarduten duten irakasleek gehiago jabetu behar dira haiekiko dituzten sentimendu eta ideiez, horiek galaraz baitezakete ikasleen beharrak onartzea eta ondorioz harremanaren hobekuntza. Harreman on batek eta gelako portaera-arazoak gutxitzeko irakaslearen gaitasunak (Ikusi 1.) ikaslearen ikasteko kontzentrazioa areagotuko du.

- Erabili humorea gelan.
  - Saiatu ikasleen ikuspuntua kontuan izaten egoera eta arazo desberdinetan eta entzuteko prest egon.
- Haurraren alderdi onei buruz hitz egin beste haur edo helduen aurrean.

### **Aipamenak:**

Birch S.H., Ladd G.W. "Interpersonal relationships in the school environment and children's early school adjustment: the role of teachers and peers", Chap.9, P.199-225, in Junoven J. & Wentzel,K, Social motivation : understanding children's school adjustment. Cambridge University Press, 1996.

Brekelmans M., Wubbels T., Tartwijk J. "Teacher-Student Relationships across the Teaching Career". International Journal of Educational Research no 43, 2005.

Eccles J.S., Midgley C. "Stage-environment fit: Developmentally appropriate classrooms for young adolescents, in C. Ames & R. Ames EDS, Research on motivation in education: goals and cognitions, volume 3 (pp.139-186). Academic Press. N.Y. 1989.

Huberman, M. (1993). "Steps toward a developmental model of the teaching career". Kremer-Hayon, Vonk & Fessler (Eds), Teacher Professional Development: a multiple perspective approach. Amsterdam: Swets & Zeitlinger.

Klem A.M., Connel J.P. "Linking Teacher Support to Student Engagement and Achievement". Journal of School Health. September 2004, Vol. 74, No. 7.

Noam G.G., Fiore N. "Relationships across Multiple Setting. An Overview". New Direction for Youth Development, No. 103, Fall 2004, Wiley Periodicals Inc.

Stuhlman M.W., Hamre B., Pianta R. "Building Supportive Relationships with Adolescents". Middle Matters. Fall 2002.

Werner E. and Smith R. (1989). "Vulnerable but Invincible: A Longitudinal Study of Resilient Children and Youth". New York, Adams, Bannister and Cox.

Artikulu hau jatorrizko iturria eta web-orria aipatuz erabil daiteke.  
[www.golden5.org](http://www.golden5.org) web-orriak copyrighta du

## GOLDEN ARLOAK



### GIZARTE-GIROA

Elena Buccoliero (2007)

Aurkibidea:

<i>Zein da ikasgelaren helburua?</i> .....	3
<i>Ba dago adostutako edo partekatutako araurik?</i> .....	3
<i>Norena da lidergoa?</i> .....	4
Lider formalak, informalak eta bully-liderrak .....	4
Orientabide desberdinak ikasgelako taldean.....	6
Karismadun liderra.....	6
Baztertua.....	8
<i>Baztertuak bere burua eskaintzen duenean</i> .....	9
GOLDEN: funtsezko urratsen proposamena. ....	9
a. Egiturak, arauak eta ohiturak.....	10
b. Harremanak .....	12
c. Balioak .....	14
Napoleseko Chance proiektua:eskola-kulturan eta egituraturiko ereduan esku-hartzea	15
Bibliografia.....	17

### **Ikasgela talde bat da (edo beharbada ez)**

Bigarren hezkuntzako lehen ikasturtean neska-mutilen taldeak elkartzen dira leku berean eta aldi berean , eta horrela jarraituko dute zenbait urtetan zehar. Garai horretan, ezohiko zenbait kasutan izan ezik, lekuaren eta unearen konbinazio hori izango da beraien arteko lotura.

Ez dute oraindik talde bat osatzen, baina osatzera irits daitezke. Psikologia Sozialaren arabera, talde baten osaketak hainbat fase jarraitu behar ditu. Tuckermanek proposaturiko eskema ikusiko dugu, fase horiek zertan datzan jakiteko:

Talde baten osaketari buruzko Tuckermaneneredua

Urratsak	Zer gertatzen da
Esplorazioa	Helduberriek inguruan begiratzen dute, besteei buruzko beharrezko informazio guztia jasotzen dute eta beren aurkezpena egiten dute. Adostasunak eta adiskidetasunak eraikitzen hasten dira.
Prestakuntza	Harremanak mendekotasuna eta balioztatzearen inguruan biltzen dira, roletako lider garbiak sortuz eta taldeen babesa lortuz. Liderrak du, bere portaera dela medio, talde-kultura garapenean eraginik handiena.
Ekaitza edo gatazka	Talde barneko oreka arriskuan dago, baldin eta: - Taldea ez badago liderrarekin ados; - Rolak ulertzeko modu desberdinak badaude; - Zenbait lagunek beren rola aldatu nahi badute. Liderrak rola argitu behar ditu.
Arauk ezartzea	Taldeak egitura aldatu nahi du, eta kide guztien artean adostutako arau eta balio sistema sortzen dute.
Errendimendua	Une horretan, taldeak gogor lan egiten du ezarritako helburuak lortzeko. Taldea sorrerako helburua lortzen saiatuko da.
Atzerapena	Itxierak taldearen zatiketa ekar lezake (adibidez, ikasturte amaierako azterketaren ondoren) edo bakarka eragin lezake (porrot egin duena, baztertua, aldentua,...). Aldi horretara nahita edo halabeharrez hel liteke.

Ikaskideen taldea halabeharrez sortutako taldea denez eta erakunde baten barnean dagoenez, bere lehen zereginak izaera formala izango du. Dena den, suposizio hori erakundearen eta ikasleen hezkuntza-mailaren araberakoa izango da.

Zereginera pixkanaka egokitzen badira ere, hasieran esplorazio-aldi bat egoten da beti. Hain zuzen ere, lehen ikasturteko ikasketa-planek hasierako motelaldi bat aurreikusten dute, ikasleek testuinguru berrira egokitu behar dutelako. Aro hori ongietorri-proiektuekin arintzen da, izan ere taldearen egitura eta elkar ezagutzeko prozesuaren helburuak batzeko modu bat da, berez ohiko egoera batean motelagoa izango litzatekeena eta ez hain sakona.

Ikaskideen arteko harremanen eraketak ez du amaierarik. Esplorazio-arotik aldentzea eta arreta zereginen jartzea zaila gerta liteke, hori dela eta etenaldiak eta atzerapenak egongo dira.

Atzerapen horiek arazoak sor ditzakete, batez ere, egin beharreko zereginari buruzko adostasunik ez dagoenean, araudien ikuspegitik testuingurua zalantzakoa bada, edo ez badatoz bat liderraren aukeraketarekin.

### ***Zein da ikastaldearen helburua?***

Argi dago eskolaren zeregin formala jakintza-arloen ikasketa-prozesuak garatzea dela, pertsona beraren ezagutza ere barne delarik. Irakasleak maiz ohartzen dira "ikasleak lagunekin egotera etortzen direla, baina ez ikastera". Bizi duten abentura beraien arteko harremanen ingurukoa da, onak edo txarrak, dibertigarriak edo sufrimenduzkoak izan daitezkeenak.

Irakasleek ere, helburu profesionalaz gain, helburu pertsonalak izan ditzakete. Erabat arrunta da erakunde batean helburu inplizitu eta esplizituak guztiz bat ez etortzea, baina elkarrekin lantzeak ez du esan nahi bateraezinak direnik. Ahalik eta gehien dibertitzeko, ikasleek eskolak hutsegin behar badituzte, gurasoek edo irakasleek esandakoa entzun behar ez badute, eta beraien kontura barre eta txantxak egin behar badituzte, begi bistakoa da eduki akademiko batzuk ikasteak ez duela inolako aukerarik.

*Ikasleen gehiengoak ikasteari balioa kentzen dionean edo taldearen eskarmentua aitzakietan oinarritzen denean, harremanen boterea ezagutzena baino handiagoa da; ezagutzak blokeatuta daude, ez baitira hain interesgarriak, eta dena den, horrela neska-mutilek irakasleen eta eskola-erakundearen aurrean beren nagusitasuna adierazten dute.*

### ***Badago adostutako edo partekatutako araurik?***

*Arauen testuinguruaren anbiguitasuna* nabarmena da bigarren hezkuntzako institutu askotan, non lanerako oinarritzat hartutako helburu formalak diren ahulgune nagusiak. Gainera, arauak baliagarriak izan behar dute, helburuak lortzeko erabilgarriak. Zeregina egokitzen ez bada edo bat ez badator, arauak ezin dira bat etorri, bereziki kasu gehienetan, arrazoi hauengatik:

- Arduradunek ez dituzte arauak errespetarazten.
- Arauak ez errespetatzearen aurkako balizko zigorrak ez dira garrantzitsuak beraienezat.
- Ez dago eskolako elkarbizitzarako arauak sortu zituzten irizpideak barneratu eta partekatzeko prozesurik.

Goffmanek lehenago ere hitz egin zuen erakunde guztien ezkutuko curriculumaz. Bistan da, erakunde batean, anbiguitasunaren arazoa taldeak edo taldearentzat sortutako arau inplizituen bidez konpontzen dela. Ikastetxeetan ikasleek hitz egiten dugu, baina baita irakasleek ere, izan ere, horiek ere, aldi berean, beren arauak eratu eta finkatzen dituzte ( batzuetan gainera, arau komunik ez izatea da araua) eta heziketa eta gazteen portaerari buruzko kodeak partekatzen dituzte.

Ordezko arau batzuk sortzea, ez da berez txarra, erreferentzia-puntuak bilatu beharretik sortzen baita, izan ere, nerabezaroko eta nerabezaroaren aurreko garaiko ezaugarri oso garrantzitsua baita, are gehiago familian edo eskolan arazoak dituzten gazteentzat.

Arazoa sortzen da arau horiek legezkotasun ezaren edo prebarikazioaren inguruan eratzen badira.

Argi dago, taldeak lider baten inguruan identifikatzeko beharra duela; lider hori formala edo ez-formala izan liteke, hautatua, eskatutakoa edo kanpotik ezarritakoa. Irakasleek agintari-zeregina dute ikaskuntza-zereginen garapenean; beraz, lidergoa hartzeko dituen aukerak ikasleek hartzen duten eskolarekiko konpromiso-mailaren baitan daude lehenik. Ikastea aintzat hartzen bada, ondo prestatutako irakasle guztiak erreferentzia izan daitezke, mesede pertsonaletatik haratago, baina horrela ez denean, irakasleen arrakasta karisma edo agintearen erabileraren esku gelditzen da; horrela, liluraren edo ezarpenaren botereaz gidatzen ditu ikasleak.

Ikastaldeak, bestalde, bere barne-bizitza dauka, zintzilik dagoen harreman-sare bat delarik, eta ,bereziki elkar ezagutzen duten lehen unetan, non oinarritu aurkitzen ez badu gazte askok beren eragina ezarriko dute. Kide bakoitzak edo kide-taldeak aukera guztien alde onak eta txarrak aztertu ondorengo negoziatziotik aterako da liderra.

## Lider formala, informala eta bully-liderrak

Ikastalde batean, hainbat lidergo-mota bereiz daitezke pertsona batengan edo batzuegan: irakasleek emaniko zeregin bereziak dituzten ikasleei maila formala ematen zaie, eta maila informal batean berdinek garatzen dute, hauteskundeetako emaitzak ez ezik, besteengan eragiteko trebetasuna ere kontuan izanik.

Zenbait ikastaldetan badira era guztietako itxuragabekeria eta eraso egin dituzten ikasleak taldeko lidergai izan litezkeenak.

Ikastalde bateko lidergo-motak

Lider-mota	Eginkizunak eta rol-definizioa
Lider formala	Bere ikaskideek edo irakasleek aukeratzen dute ikastaldea ordezkatzeko. Erakundearen ikuspuntutik, eskola eta irakasleekiko bitartekaritza lana betetzen dute. "Zereginean adituak" dira.

<b>Lider informala</b>	Taldearentzat erreferentzia bihurtzen diren karismadun neska-mutilak dira, eta beste batzuek baino eragin handiagoa dute taldearen dinamika eta funtzionamenduan. "Harremanetan adituak" dira. Beren ezaugarriak: ikaskideekin identifikatzen dira eta ekimenaren funtsa dira.
<b>Bully-liderra:</b> Bere burua indartu nahi du, ez da beti lider modura onartua izaten.	Bere presentzia adierazten du, bereziki neska-mutilen bat erasoz. Ikasgelan badaude, ikaskideek bere abusu eta tratu txarrak isildu eta egoera onartu eta partekatzen dutelako daude.

Lider-mota desberdinen konbinazioa aldatu egiten da taldeak ikasteari ematen dion garrantziaren arabera eta berdinen arteko indarkeriaren (Bullying) balorazioaren arabera.

Ikus ditzagun talde-egituraren neurriaren araberako zenbait hipotesi:

"Taldea ala banakoa" erako ikasgelaren norabidea, taldean ikusitako kohesioaren araberakoa, zeinak balio, jarrera eta portaeren unibertsaltasuna eskatzen duen, edo banakotasunari ematen dioten garrantziaren araberakoa.

"Arreta zereginean ala harremanetan": kideen araberakoa, eskola-erakundeak proposaturiko helburuei (ikastea, pertsonaren garapen osoa) edo berdinen arteko sozializazioari garrantzia ematen diotenak dira, eta independientzat edota batzuetan oztopatzailetzat ere hartzen dira, ikasketek behartuta.

Bi alderdi horiek bilduz gero, muturreko lau aukera lortuko ditugu, baina horietako bat bera ere ez dugu aurkituko adierazten den bezala. Ikastalde bakoitzak bere oreka topatzen du pertsonarenganako arretaren eta taldearen kohesioaren artean, hau da, ikastearen eta sozializatzearen artean.

Ikasgelaren orientazioa	Taldearen zeregina bat dator eskola-zereginekin	Taldeak ez du onartzen eskolak ezarritako helburua, eta berdinen arteko harremanak aukeratzen ditu.
<b>Talde-norabidea</b>	Denentzat da garrantzitsua ikastea eta nortasuna garatzea. Ikaskuntza-prozesuekiko lankidetzat dago. Taldeak bullying-a baztertzen du, taldekideen hazkuntza eragozten duelako.	Ikaskideek edo irakasleek aukeratzen dute bere ikastaldearen ordezkari modura. Erakundeen ikuspegitik, Eskola eta irakasleekiko bitartekaritza lana betetzen dute. "Zereginean adituak" dira.
<b>Banakako norabidea</b>	Garrantzizkoa da norbanakoak bere trebetasunak azaltzea. Ikasteko lehia dago. Bullying-a erabat legez aurkakotzat jotzen dute.	Taldearentzat erreferentziatzko neska-mutil karismadunak dira eta besteek baino gehiago eragiten dute bere dinamika edo funtzionamenduan.

## Norabide desberdinak ikasgelako taldean

Aurrez aurkeztutako eskemak lau aukera azaltzen dizkigu. Harreman desatseginak, bullying izenekoak, hiru kategoriekiko zeharkakoak dira eta hainbat adierazpen eta esanahi dituzte.

Ikastaldea ikastera bideratuta dagoen gizabanakoaren kultura batean, bullyinga agertzen denean, helduek gutxitan onartzen dute, edo antolaketarako baliagarria izan daiteke, eta zaila izaten da aurka egitea.

Ikastaldea harremanetara bideratuta dagoen talde-kultura batean, bullyinga agertzen denean, taldekide gehienak alde agertzen dira, eta erasotzailea lidertzat hartzen dute.

Ikastaldea harremanetara bideratuta dagoen gizabanakoaren kultura batean, bullyinga, agertzen denean, haustura gogor batetik dator. Bere portaera ez da inorentzat koherentea; bullying-portaeraren bidez boterea lortu nahi dutenean ere, batez ere biktimak dira. Zenbait harremanetan biktima eta beste zenbaitetan erasotzaileak diren neska-mutilak dira. Aurreko kasua eta hau desberdinak dira, hauek ez baitute "ideologia-justifikazioaren" euskarririk; beren bullying-ekintzek ez dute imitatzailerik edo aldekorik topatzen. Kasu horretan, bullyingaren biktimak sistemaren ahulezia sakon baten adierazleak dira, zeinari ikastaldea ezin dion aurre egin, nahiz eta arau-sistema osatu eta eraginkor baten aurka egon. Ez eskolak ez taldeak ez du ia araurik, ezta zigorrik ere. Egoerak gainezka egin du, eta bakoitza besteen aurka dagoela ematen du.

## Lider karismaduna

Aipatutako guztiaz gain karismaduna dago. Lider hori bere ezaugarri pertsonalak, karisma eta taldean duen izena direla medio sortzen da. Bere boterea batzuk dioten mirespenean eta beste batzuen beldurrean oinarritzen da, berezkoa duen eta besteengan erabil dezakeen karismaz baliatuz. Bere inguruko mutilek honela deskribatzen dute: "atsegina, argia, dibertigarria, lider gogorra, defendatzeko gai, ...".

Adituek diotenez, lidergoa ez da ezaugarri pertsonalen konbinazio bat, identifikazio-estrategia bat baizik; izan ere, bere buruarekiko besteak duten mirespenaren bidez, bere nia indartzeko modu bat besterik ez da. Hori bera lortzeko beste modu batzuk daude. Nerabezaroan, taldea da erreferentzia nagusia nork bere buruarekin esperimentatzeko eta nortasuna taxutzeko, zenbaitetan familia bera baino garrantzitsuagoa. Lider karismadunak bere autoestimua elikatzen du jendeak berari buruz duen iritziaz. Horrez gain, ikasketetan ez bada oso ona, baztertuta egon ohi da; baldin eta berak ez badu egoera hori konpontzen bestelako baliabideak erabiliz. Bere zailtasunak eta gaitasunik eza ahazteko modua bilatzen saiatuko da, eta identitate sozial positiboa osatuko du. Lider karismadunak taldearentzat rol praktikoa betetzen du, bere izaerarekin anbiguotasunak konpondu, arau argiak eman eta eredu edo jarraitzeko bide bat eskaintzen baitu. Taldearekin duen harremana hartu-emanetan oinarritzen da. Berak zerbait ematen die bere ikaskideei, baina aldi berean, berak zerbait jasotzen du beraingandik ere.

Ematen duenaren artean, bere nortasun indartsua eta errealizatzeko gaitasuna, besteena baino hobea, eta gainera taldeak garrantzitsutzat jotzen du zenbait egoeratan parte hartzea, hau da, bai biologia ikasten bai ogitartekoak lapurtzen. Bere ahalmenaz, karismadun liderrak arau-hutsunea betetzen du eta baita ziurtasun eza eta zalantzazko uneak – garrantzitsuak izan daitezkeenak, batez ere, taldearekin lehen eratzeko-aldian. Horrela taldeari balio eta portaeren erreferentzia-eredu bat eskaintzen dio.

Liderrak bere jarraitzaileen konfiantza jasotzen du, eta adiskidetasunean eta elkartasunean oinarrituriko sistema batez adierazten da, non denak oso harro sentitzen diren taldekide izateaz. Bere jarraitzaileek konfiantzaz eta mendetasunez zuzentzen zaizkio; berarekin identifikatzen dira, batzuetan leialtasun zintzo batez. Bere antzekoak izaten saiatuko dira, jakinik inork ez duela bere tronutik kentzea lortuko.

Beharrezkoa bada, berak doitu ditzake bere helburuak nor den indartsuena erakusteko. Barne hierarkiak hainbat maila



Liderraren laguntzaileek ezin dute beren desadostasuna agertu ezta liderra baino indartsuagoak direnik azaldu, ikasgelako barne ordena ez nahasteko; baina, haiekin alderatuta, testuinguru diskriminatzaileagoan edo baztertzailagoan bizi diren ikasgelako beste zenbait ikaslerentzat eredu izan daitezke. Bullying-egoera batean, eredutzat har dezakete bullying-liderraren erasoia jasaten duen biktimaren rola, eta indarkeria erabili ahulenen aurka beste noizbait.

Karismadun liderrarekin identifikatzen ez den ikasleak ondo ezagutzen du taldeak desberdinekin duen jarrera, eta taldeak bazter ez dezan isiltzen du bere desadostasuna.

Talde horietan, bada barne arau inplizitu bat zenbat ikaslek ikasiko duten arautzen duena, eta horrek eragin handia du eskola-konpromisoan, eta ez da kasualitatea zenbait irakaslek “ikastalde ona”ren eta “ikastalde zeharo txarra”ren arteko bereizketa egitea.

Iritzia orokorra izan daiteke, bere osotasunean, ikasleek elkarrekin erabakitzen baitute, gehienetan, zein eskola-estandar beteko dituzten nahitaez, baita inplizituki ere. Erakundeetako teorikoei badakite zer puntutaraino bazter dezaketen langile nekaezin bat bere lankideek, bere ekoizpen-maila jaitsi dezan konbentzitzeraino. Izan ere langile horren eraginkortasuna talde osoaren aurkako mehatxua izan daiteke, nagusiengan itxaropen handiak sorrarazteko arriskua baitago.

Ikasgela batean ere, ikaskideen artean lotura handia badago, guztien eskolarekiko ardura berdina izango da orokorrean, eta taldeak zigortu egingo du batez bestekotik urruntzen dena.

## Baztertua

Karismadun liderraren ispilua, turko-buruia da. Rol hori talde askotan topa dezakegu eta nerabe-taldeetan gehiago, bereziki, identifikazio-prozesu natural bat, beraiek aukeratutakoa alegia, jarraitzen ez duen neska-mutilen konbinazioa duten eskoletan. Baztertuak onartzen du negatibotasun guztia, tentsioak, arazoak, desadostasunak, salaketak eta taldearen isekak. Bere ikaskideek suebaki-lana eskertu beharko liokete. Horiek dira egunero une garrantzak bizi dituztenak, besteak beren harmoniaz gozatzen duten bitartean. Turko-buruak, edozer dela eta, taldea utziko balu, aldi baterako izanda ere, erraz ikusiko lirateke, hasieran betirako lagunak izango zirela hitz eman zutenen artean, ordura arte ezkutuan gordetako gatazkak

Turko-buruia ez da ustekabea aukeratzen. Taldea fama edo irudi, portaera, eta balioen inguruko batasunik handiena lortzen saiatzen ari denean, turko-buruia da beste edozein baino gehiago urruntzen dena batez bestekotik.

Aniztasuna begi bistakoa izanik, berdintasuna gordetze aldera, arrazoa edozein delarik, taldeak barne gatazka kanporatzen du bere karga negatibo guztiaz, jasaten ari dena isolatu arte. Isolatze hori sinbolikoa izan daiteke; kasu horretan etengabe isekak jasaten dituen ikaslea bere ikasmahaiari bakarrik egongo da, elkarrekintza-uneetan isolaturik, gimnasiako orduetan adibidez. Baina zenbaitetan ere gerta liteke ikasle horiek, etengabeko liskarrez nekaturik, irten eta eskolaz edo ikasgelaz aldatzea erabakitzea (edo, kasurik larrienen, bere buruaz beste egitea).

Turko-buruak benetan bere ikaskideen beldur guztiak biltzen ditu. Beregan inoiz izan nahi ez luketena edo bihur daitezkeena ikusten dute; agian dagoeneko horrelakoxeak dira eta besteen aurrean nolabait ezkututzen saiatzen dira. Askok dakigu homofobiari buruz, hala nola, ezkutuko jatorria nola jakin, homosexualitateari buruzko beldurrak. Adibide hori bereziki garrantzitsua da nerabezaroari buruz ari garenean, garai horretan sexu-identitatearen eraketak bereganatzen baitu harretarik handiena, eta horrek ikaratu egiten ditu, eta gazteak (batez ere mutila) beren burua beste era batera ikusteak, aldaketek ikaritzen ditu. Nerabearen bazterketa, gorputzari buruzko mezuak etengabeak direlako: “kiratsa dario”. Gazte “arraroak”, beren garaiera, pisua, gorputzaren irudia dela-eta edo elbarritasunen bat dutelako, sarri biktima pasiboak izan ohi dira bigarren hezkuntzako ikastetxeetan.

Desberdina izatea aitzakia ontzat hartzen da norbait deskalifikatu edo taldetik baztertzeko. Bazterketa funtzionala da “perfumatzen” direnentzat, “ondo janzten” dutenentzat eta “bizi-ohitura osasuntsuak” dituztenentzat, horrela beren nortasuna sendotu eta agertzen baitute

## **Bazterketa nork bere buruari eskaintzen dionean**

Badira zenbait talde turko-bururen beharrik ez dutenak, beraiek eskaintzen baitira. Bullyingari buruzko ikerketetan “ biktima probokatzaile” izena jasotzen dute. Eskola eta bere dinamikan ordu asko ematen dutenak dira, baina ez modu eraginkorrean, hori dirudi behintzat. Etengabe min eginez, arreta erakarriz, besteen gauzekin jolastuz, gezurrak esanez, jakintsu modura agertuz, eta bestelako gauza asko eginez, horrek indar guztiak eskatzen baitizkie. Gazte hauei buruzko galdera egiten denean, beren ikaskideek honelakoak esaten dituzte: “ merezia dute” tratatu txarra, “ bila ibiltzen dira”. Dinamika taldearen ikuspegi beretik ikusten duten gehienek ideia hori dute. Sarri antzematen da irakasleek ezin dituztela gazte horiek begi bistan ikusi.

Gai nagusiak, ikasgelako esku-hartze bat prestatzean, bi urrats hauek jarraitu behar ditu: Lehenik eta behin argi utzi behar da errespetua irabazi egin behar den ala opari modura jaso behar den. Errespetuaz ari gara, ez sinpatiaz edo adeitasunaz, horiek aukera pertsonal bat eskatzen baitute besteekiko harremanetan. Eta horrek proportzioaren kontzeptua dakarkigu, kide batek taldearen aurka egin dezakeenaren eta taldeak kideari egin diezaiokeenaren arteko proportzioa, alegia.

Bigarrenik, jakin behar da zerk bultzatzen dituen zenbait gazte bere ikaskideekin sartzera, galtzaile irtengo direla dakitenean, eta, gainera, zergatik jarraitzen duten bere ikaskideek erantzuten, ziur dakitenean, askotan bizi izan dutelako, inoiz ez dutela ikasiko eta berriro ere modu berean jokatuko dutela.

Portaera horien errepikapena turko-buruaren mekanismoaren zati bat da, eta askatze-funtzio bera betetzen du, baina balio erantsi bat du, badirudi turko-buruak zigortua izatea eskatzen duela.

Gazte hauen bizimodua hurbiletik eta kontu handiz begiraturaz bakarrik azal daitezke beren ahuleziak. Horietako batzuk baztertuak izan dira beste testuinguru batzuetan, eta orain beren galtzaile-rola betikotzeko beharra dute, modu horretan bizi izan duen funtzio bakarra eraginez. Beste batzuek eskolaz kanpoko jarduerak benetako isolamendu-egoera modura bizi dituzte, edo asko presionatzen dituzten gurasoak, pentsaera itxikoak, babesleak edo barkaberak dituzte, eta ikastetxean besteen arreta erakarri beharra sentitzen dute; taldearen funtsezko rolen bat irabazi edo izan nahi lukete, eta , beharbada, beren haserrea adierazi

## **GOLDEN5: funtsezko urratsen proposamena**

Lehenago aipatutako arrazoi horiengatik guztiengatik, ikasgela barruko harremanak hobetzeko lan egiteak esan nahi du ikasleen eta ikastetxearen bizitzarekin loturiko alderdiei esanahi bat ematen zaiela, ikasteko motibazioa indartuz eta bakoitzaren esperientzia hobetuz.

Ba dira oso gauza errazak, edozein irakaslek egin ditzakeenak, eta ikasgela berean irakasle desberdinek partekatzen dituztenean, edo, oraindik hobeto, hezkuntza-talde osoak adosten dituztenean, oso eraginkorrak gertatzen direnak.

Hori guztia, taldearen ikaskuntza-prozesua kontuan hartuz eta arduraz lan eginez: arauetako konfiantza emanez, elkar ezagutzeko aukerak emanez, aniztasuna balio modura aurkeztuz, bakoitzak taldeari eman diezaiokeen aberastasunari garrantzia emanez.

Europako Golden5 proiektuan egin ditugun bilerek hainbat eskolen arteko desberdintasunak hausnartzeko aukera eman digute, ikasgelaren osaketa, asteko ordutegiaren antolaketa, irakaslearen eta ikaslearen rola arauak, eta horrelako egitura-kontuetatik hasita.

Orain ikasgelako giroa hobetzeko eman ditzakezun zenbait urrats azalduko ditugu. Urrats horiek hiru arlo hauetan banatzen dira: *helburu bateratuak, elkar ezagutzearen garrantzia eta elkarlanean.*

banatzen dira:

- a. Egiturak, arauak eta ohikeriak.
- b. Harremanak.
- c. Balioak.

## a. Egiturak, arauak eta ohikeriak

### 1. Helburu bateratuak

Zenbait helburu norberak bakarrik lor ditzake. Irakasle batek adibidez, oso ona bada ere, ezin du bere gaia irakatsi ikasleak ikasi nahi ez bada. Lankidetzaren sustatzeko modu ziur bat gure ikasleak helburu bateratu batean inplikatzeko da. Kasu jakin batean, irakasleak azal diezazkieke ikasleei bere lanaren oinarriak eta bere rola inposatzen dizkion mugak. Irakasleak hein batean negoziatu ditzake ikasleekin eta beren ikuspuntua kontuan hartu.

*Funtsezko urratsa:*

*Helburu bateratuak sortzea ikastaldearentzat eta gizabanakoentzat, ikasleekin helburu horiei buruz hitz eginez, ondo azalduz zer espero den beraiengandik, irakasle batek ikasleekin, beren behar eta ahalmenen arabera, erabiliko dituen hainbat estrategiari buruzko adostasuna finkatuz.*

### 2. Arauen ziurtasuna

Ikusi dugunez, talde baten eraketan arauen eta kide bakoitzak bete beharreko rola inguruko zalantzazko aldi bat izaten da. Ikastalde batek irakasle bakoitzaren ausardia eta ahalmena probatzen ditu, noraino irits daitezkeen ulertzeko. Ikaskideen arteko harremanetan ere, besteekin izan beharreko jokaera zuzenari buruzko iritzi desberdinak egon daitezke.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da, batez ere, elkar ezagutzen hasten direnean, arau argiak eta taldekideekin partekatuak finkatzea, haiekin identifika daitezkeen eta irakasleak, behar dituztenean, erreferentziatzen har ditzan, berak errespetatzen dituela eta haietan sinesten duela frogatuz eta taldeari eurek eginiko aukerekin koherenteak izateko eskatuz. Eta arauak, batetik, modu positiboan adierazi behar dira, zer egin eta zer saihestu zehaztu behar dute, batak zein besteak esperientzia horretan hasten ari den pertsonaren sentimendua eta arreta indartzen dituelako, eta bestetik, arau positibo baten adierazpen- eta zehaztasun-maila izan behar dute.

*Funtsezko urratsa:*

*Ikastaldearekin batera 3-5 arau positibo sortzea, eta erreferentzia modura erabiltzea. Arauak ikasturtearen hasieran ezar daitezke, ikasleei era askotan aurkeztu ahal zaien negoziazio-prozesu baten bidez.*

- *Txartel anonimoak erabiltzea. Txartel horietan ikasle bakoitzak ikasgelan landu nahi dituen arauak proposatzen ditu, eta ondoren, iradokizun guztiak jaso, bildu, eztabaidatu, aukeratu eta azkenik ikasgelarako behin betiko arau-zerrenda osatzen da.*
- *Ikasle bakoitzari eskatzen zaio txartel batean idazteko 3-5 arau positibo, zeinekin bere burua identifikatuta ikusten duen, eta ondoren eskatzen zaie lehenik, bikoteka elkartzeko, arau horiek negoziatzeko, (bikote bakoitzari zerrenda bateratu bat eskatuz), gero, 4, 8, eta abarreko taldeetan elkartu eta nolabaiteko batasun batera iristen saiatuko dira.*

*Irakaslearentzako oharra: Ikasgelako arauak eraginkorrak dira, indartu eta denbora luzez indarrean badaude. Horrek ez du esan nahi zigorra ezarriko dela soilik, baizik eta, horrekin batera, egiaztatuko dela arauak erabiltzen diren ala ez eta nola, errealistak diren, etab; ez daitezela, gure ikastetxeetako hainbat arauen antzera, ahaztuta geratzen diren arau horietako beste adibide bat bihurtu (eta ez ikastetxeetan soilik).*

### 3. Bestearen ezagutza indartuz

Taldekideak zenbat eta gehiago bat etorri helburu zehatz, errealista eta “berezia” izatea espero duten helburu batekin, orduan eta kohesio handiagoa izango du taldeak. Horrek egoera errealak antolatzea eskatzen du, non ikasle bakoitzak beste kideak benetako baliabidetzat hartuko dituen, ideia, trebetasun eta estrategia desberdinak, osagarriak eta zenbaitetan bereak baino hobeak dituztelako, eta talde bezala, elkarrekin, ikasgelako kide bakoitza baimendu, aintzat hartu eta onartu dezaketelako.

#### *Funtsezko urratsa*

*Elkarrekin lan egiteko aukera ematea: talde lanak, laborategiko lanak, erakusketak, etab... elkar ezagutzeko eta, besteak errespetatuz, elkarrekin lan egiten ikasteko benetako aukerak izan daitezke.*

## b. Harremanak

### 1. Taldean lekua dago taldekide bakoitzarentzat

Harremanen ikuspuntutik, oso garrantzitsua da kide bakoitzak antzematea leku bat duela taldean, eta horrek ez die nahitaz kalterik eragiten beste taldekideei. Era horretan taldekoa delako sentipena eraikiko du, besteei entzuteko eta aldi berean besteek berari entzuteko eta beste kideengan arreta jartzeko aukera ematen duena, elkar ezagutzuz, horrela elkar onartzeko eta leku bera partekatzeko aukera edukiz. Talde kide bakoitzari elkarren artean ideiak nahierara trukatzeko aukera eman behar diogu, bere erreferentzia-esparruaren arabera, denei aukera berdina eskaintzeko, taldekide bakoitzaren desberdintasunak leunduz.

#### *Funtsezko urratsa:*

*Batzuetan ikasleei beren interes, gustu eta bizitza azaltzeko aukera ematea; adibidez, txandaka batak bestea elkarriketatzea edo etxetik zerbait ekartzea eta taldekideei erakustea, norberaren istorioak edo familiarenak kontatzea, non eta zer gertatu zen bereziki ondo azalduz (familia-egoera eta egoera pertsonal latza duten ikasleak kontuan hartuz), etab.*

### 2. Epaiketa edo beldurraren aurka ezagutza

Beldurra diogu ezagutzen ez dugunari. Eta askotan, talde baten bizitzan esamesak, aurreiritziak, bazterketa, desberdinarenganako beldurra ezkatuzeko modu bat dira; taldetik kanpo bakarrik uztea, indartsuagoa sentitzeko (talde edo pertsona modura) desberdina etsaitzat hartuz. Baina ikasleek elkar sakonago ezagutzeko aukera dutenean, oso harrigarria da aipatutako prozesua gertatzea, euren berdinkideekin antzekotasun pertsonalak aurkituko dituztelako, interesa eta jakin-mina eragingo dieten arrazoiak egongo direlako, eta gogorragoa izango delako norbait taldetik kanpo utzi behar den erabakitzea, hobeto bizitzeko.

#### *Funtsezko urratsa:*

*Ikasleen arteko elkar ezagutza sustatzea: era askotan lor daiteke helburu hau, eta zenbait iradokizun eman dira aurretik; adibidez, arduratsuki ikasmahaiak aldatzea, helburu jakin batean eta une jakinetan lankidetzan aritzeko aukera ematea elkar hobeto ezagutzeko moduak dira.*

### 3. Taldea baliabide modura ikusiz.

Taldeak ohikoak dira hezkuntza-testuinguruan, non ikasleak beti elkarrekin dauden beren gisakoekin, eta ordezkatu ezin daitezkeen ezaugarriak dituzte. Ikastea edo jolastea, beharra eta dibertsioa, bakoitzak ahal duena ematen dio taldeari, bere kemena edo irudimena, bere umorea, arreta helburuan jartzeko gaitasuna, entzuteko eta taldekideei adorea emateko gaitasuna.

Jakin badakigu talde on batean, lider bat baino gehiago egon ohi dela, baina nabaria da liderraren zeregina desberdina dela, taldeak egiteko eskatzen dionaren arabera alegia. Talde modura lan egitea, irakasle batentzat, zera da: berak irakasten duen ikasgaia bakarrik ikasi behar duela ikasleak pentsatzetik — ikastalde bateko kide izatea halabeharrik edo antolaketak sortutako behar bat balitz bezala – talde-dinamikak ikasketa eta, ondorioz, irakaslearen lana ere, batez ere, bere talde-gidari lana, hobe dezakeela pentsatzera igarotzea.

Zinez, Italian behinik behin, zenbait irakasleek “arrisku” modura ikusten dituzte talde-lanak, zailagoa delako ikastalde osoa begiratu eta kontrolatzea. Talde-lanak gustuko ez dituen irakasle batentzat, estrategia probetxugarria izango litzateke, hasieran behinik behin, ikasgai bat ematea lankide batekin; horrela ziurrago senti daiteke, batez ere ikastalde zaila bada

*Funtsezko urratsa:*

*Taldeari berdinkideen arteko konfiantza eta harremanak hobetzeko jarduerak proposatzea.*

#### *4.- Konpentsaziotik lankidetzara*

Hobeto ikasten dugu irakasteko beharra daukaguna. Hori defendatzen du gizarte-psikologiak eta pedagogiak, nahiz eta ikastetxeetan oraindik ez sarri erabili. Irakaskuntzaren eskema, gehien dakitenek oraindik ez dakitenei irakastea da, eta eskema beti irakasle eta ikasleen artean jarraitu behar da. Bestalde, ikastetxean irakasten dena zabala da, eta ziur asko berdinen arteko harremanetik abantaila hartuko du irakaskuntzaren esanahia hobetzeko, irakaskuntzan ikasleei ardura txiki bat emanez, ikasle bakoitzaren trebetasun eta jarrerari balioa emanez. Bakoitzaren arrakasta talde-lanaren gaitasunen bidez lortzen da, eta ez baten gaitasunak besteara gailenduz.

*Funtsezko urratsa:*

*Ikasle batzuek beste batzuei lagun diezaietela eskolako lanetan. Berdinen arteko tutoretza.*

## **c. Balioak**

### *1. Autonomia*

Irakaskuntzaren arrakasta eta, orokorrean, hezkuntzarena ikasle askeak prestatzean datza. Horrela, bada, esate baterako irakasle batentzat lorpen handia litzateke ikaslearengan ikasteko metodo bat, jakin-mina eta gaiarekiko grina sortzea.

Pentsaera autonomoa, burubidea, erabakitzeko gaitasuna, etab. haurtzaroan eta nerabezaroan garatzen dira, pausuz pausu, adinari eta neska-mutilen ezaugarriari zein bizi dituzten testuinguruei egokituz.

Ikastetxean, autonomia handiagoa suspertzen duten prozesuen bidez, baita ikaskuntza-prozesuan ere, konturatzen dira konfiantza dugula beraiengan, sinesten dugula egingo duten horretan, beren alde positiboa ikusten dugula eta erakusteko aukera ematen diegula. Hori, jakina, ez da une bakar batean gertatzen, denbora eskatzen duen prozesu bat baita, doikuntza eta aldaketak behar dituena, eta irakaslea ikastaldearekin eta ikaslearekin hezkuntza-harremanean konprometituta egotera behartzen duena, egiten ari denaren arabera bere lana indartu edo erlaxatzeko.

*Funtsezko urratsa:*

*Autonomia sustatzea, banan-banan eredu positiboak azalduz.*

Neska edo mutil batek errazago ikasiko du zein den portaera zuzena, imita ditzakeen ereduak edo helduek beregandik espero dutena argi azaltzen dutenak baditu. Zentzu horretan, portaera positiboak sustatzeak eta horrela jokatzeko duten neska-mutilak baloratzeak identifikazio-eredu egokiak sustatzen direla esan nahi du, eta aldi berean, trebetasunak eta gaitasunak onartzen ditu, gazte guztiek baitituzte goraiatu eta indartu daitezkeen gaitasunak, baita apurtzaileenak ere.

Oso garrantzitsua da, bestalde, saihestea ikastaldea zenbait kideri etiketa negatiboren bat ezartzea, bere irakasleek ez dutelako inoiz aintzat hartzen. Badakigu zer den “mutil perfektuegia” edo bere aurkakoa, baita bere taldekideengan ezinikusia eta nazka sor ditzakeela. Alderdi positiboan erreparatzeak ez du irakaslearen aurkako “gehiegizko jarduna” eragin behar.

*Funtsezko urratsa:*

- Gizarte-harremanak sustatuz eta aldiro portaera positiboak.
- Ikaslerik onenak nabarmendu besteen eredu modura.

### **3. Taldearen eredu positiboak nabarmentzea.**

Ikasgai bakoitzaren hartzaila ikastaldea da, ez ikasleek bakarka osatzen duten taldea soilik, baita guztiek batera osatzen dutena ere. Taldearen eta elkarrekin egiten dituzten ekintzen alderdi onak balioestea, egunean zehar ondo irten denaz edo egin genezakeenaz hitz egitea taldearen hazkuntzarako eta ikaslearen ikaskuntza-prozesuko partaidetzarako gaitasuna indartzeko baliagarriak diren zenbait estrategia dira. Era berean, baliabide bat da ikasle guztiei, ez batzuei bakarrik, atzeraelikadura bat emateko, ikasleek, beraiek bakarrik, taldearen identitatea sor dezaketelako, hau da, “gu” bat bezala ikusten dute beren burua, gaitasun bat duen eta denen laguntzarekin hobe daitezkeen batasun baten parte bezala.

*Funtsezko urratsa:*

- Ikasgai edo egun bakoitzaren amaieran, alderdi positiboak nabarmentzea.*

## **Napoliko Chance proiektua: eskola kultural eta egitura-ereduan izandako esku-hartzea.**

Jarraian azaltzen dena Italiako eskola “berezi” bateko esperientzia da.

“The Chance (Aukera)” du izena eta “bigarren aukerarako” ikastetxe bat da. Napolin sortu zen 1998. urtean, auzo edo barruti espainiarretan, non bigarren hezkuntzatik hasita eskola-uzten zuten ikasleen kopurua handia zen. Gaur egun, proiektu hori hiriko beste hainbat lekutara hedatu da, eta bere helburua irakaskuntza ertaina bukatu ez zuten neska-mutilak berriro ere utzi zuten ikasturtera erakartzea da.

Eskola arruntekin alderatzen badugu, Chance eskolak oso egitura desberdina du. Ondorengo taulan nabarmentzen ditugu desberdintasun nagusiak, egitura-ezaugarriak eta ezaugarri kulturalak bereiziz. Lehenik aipatu behar dira alderdi “egonkorrak”, gauzak egiteko moduari dagozkionak: lekuak, uneak, programak, talde-lana, irakasleen prestakuntza, neska-mutilei entzuteko lekuak. Alderdi kulturalak guztiz aurkakoak dira, eta biltzen dute eskola ikusi eta ulertzeko modua, bere ezaugarri eta haien arteko harremanak kontuan hartuta.

Denboran zehar landutako ondorio bat da gaur egungo eskola (ohiko eskola italiarra behinik behin), ezagutzen dugun bezala, ez dela nahikoa, eta harremanetako ezinegona saihestu nahi izateak ez du zentzurik eskola osorik berreraikitzeke ez bada, formula berriak erabiliz prebrikazioa beren bizitzako araua dela jakin eta ikasten duten neska-mutilekin, ez 12 baitago beste modurik, beraiek sortutakorik, balio eta erakargarritasun bera duenik eta aplikatu daitezkeenik.

**Italiako eskola “arrunta”ren eta The Chance proiektuaren arteko aldeak.**
**Italiako eskola “arrunta”**
**The Chance proiektua  
Egitura-alderdiak**

Denborarik gehiena ikasgai teorikoek betetzen dute .	Denbora,nagusiki, jarduera praktikoez betetzen dute.
Eskolako guneak anonimoak izan ohi dira.	Eskolako guneak bertan bizi direnek antolatu eta apaintzen dituzte.
Ministerioak erabaki eta finkatzen ditu programak.	Programak malguak dira, neska-mutilen gaitasun eta interesen arabera.
Irakasleak esleituak dira.	Irakasleek neska-mutil horiekin lan egitea eta beren metodologia aplikatzea aukeratu dute.
Irakasleek euren sentsibilitatearen arabera prestakuntza psikopedagogikoa dute.	Prestakuntza psikopedagogiko modura, irakasleek urtean prestakuntza-ziklo bat partekatzen dute,tailerrak, bilerak adituekin, etab. eginez.
Irakaslea ikasgelan bakarrik dago.	Ikasgaiak taldean irakasten dira beti.
Irakasleek euren ikasgaiak soilik irakasten dituzte.	Irakasleek ikasgai bat baino gehiago irakasten dute, gaiari buruzko oinarriko jakintzak uzten dion adina.
Une batetik bestera ohikeria eta ohituraz igarotzen da.	Une batetik bestera igarotzeko irakaskuntzaren helburuen arabera erritual antolatua jarraitzen dute.
Neska-mutiek ikastaldeari buruz hitz egiten dute beren denbora librean.	Ikasleek ikastaldeari buruz hitz egiten dute euren artean eta helduekin, astean ordubetez, eskola orduen barnean.
Irakasleek eskola-kontseiluetan eztabaidatzen dute, urtean gutxitan.	Irakasleek aste osoan zehar eztabaidatzen dute, beren lanorduetako une jakin batean.
Zailtasunak dituzten neska-mutielekin lan egiteko ardura duen irakaslea bakarrik eta arduraz gainezka sentitzen da.	Irakasleek etengabe jasotzen dute psikologo baten orientabidea, zeinak kasu zailetan laguntzen dien.
Irakasleak dira hezkuntzan rol onartuak dituzten heldu bakarrak.	Heziketa-lana irakasleena, bedelena, gizartekideena (askotan neska-mutilen hazkuntza-prozesua bizi duten “amena”).
Larrialdi kasuetan bakarrik jotzen dute gizarte-zerbitzu eta sendagileengana.	Etengabe eta modu iraunkorrean jotzen da gizarte zerbitzu eta sendagileengana. Taldean gizarte-langile bat eta lehen aipatutako psikologoa daude.

### Aspectos culturales

Lehenengo ezagutza, ondoren aplikazioa.	Lehenengo trebetasun pertsonalak daude; beraz, beharrezko ezagutza haiek oinarritzat hartuta irakasten da.
Irakasleek beren lanaren hezkuntza-alderdiei buruzko hainbat ikuspuntu dituzte.	Irakasleek beren ikasleen heziketaren alde lan egiten dute orokorrean.
Ikasleak eskolara jotzen dute eta bertara joaten dira egin behar dutena delako baina ez dakite zehatz-mehatz zer topatuko duten.	Neska-mutilek eskolara jotzen dute eta bertara joaten dira ezagutu, partekatu eta jarraitzen dutenaren arabera.
Familia "zail"ekin harremanak izateak urruntzea, mesfidantza eta elkarrekiko salaketak dakartza..	Familia "zail"ekiko harremanean hezkuntza-elkartasuna zaintzen da..
Prebarikazio kasuetan , irakasleak ezin du haren berri eman edo aurka azaldu.	Bullying kasuren bat badago, irakasle guztiak batera esku-hartzen dute.

## Bibliografia

Buccoliero E., Maggi M., *Bullismo, bullismi*, Milano, Franco Angeli 2005

Chiari G., *Climi di Classe e apprendimento*, Milano, Franco Angeli 1994 Douglas T., *La psicologia di*

*gruppo*, Milano, Celuc Libri, 1981

Farr R. M., Moscovici S., *Rappresentazioni sociali*, Bologna, Il Mulino, 1989

Francescato D., Putton A., Cudini S., *Star bene insieme a scuola*. Roma, NIS, 1986.

Genovese L., Kanizsa S., *Manuale della gestione della classe*, Milano, Franco Angeli, 1998

Giori F., *Adolescenza e rischio: il gruppo classe come risorsa per la prevenzione*, Milano, Franco Angeli, 1998

Girelli C., *Costruire il gruppo*, Brescia, La Scuola, 1999

Goffman E., *Stigma. L'identità negata*, Verona, Ombre Corte, 2003

Goldstein A. P., Glick B., *Stop all'aggressività*, Trento, Erickson, 1990

Gordon Th., *Insegnanti Efficaci*, Teramo, Giunti Lisciani, 1971

Lehalle H., *Psicologia degli adolescenti*, Roma, Boria, 1998

Lucarini V., *Preadolescenti e vita di gruppo*, Torino, Elle di Ci, 1994

Maggi M., *L'educazione socio-affettiva nelle scuole*, Piacenza, Editrice Berti, 2004

Malagoli Togliatti M., Rocchietta Tofani L., *Il Gruppo classe*, Roma, NIS 1990



- Matza D., *Come si diventa devianti*, Il Mulino, Bologna, 1969.
- Meazzini P., *L'insegnante di qualità*, Firenze, Giunti, 2001
- Menesini E., *Bullismo, che fare? Prevenzione e strategie d'intervento nella scuola*, Firenze, Giunti, 2000
- Menesini E., *Bullismo: le azioni efficaci della scuola*, Trento, Erickson, 2003
- Novara D., *L'ascolto si impara, Domande legittime per una pedagogia dell'ascolto*, Torino, Gruppo Abele, 1997
- Olweus D., *Bullismo a scuola. Bambini oppressi, bambini che opprimono*, Firenze, Giunti, 2001
- Pietropolli Charmet G., *I nuovi adolescenti*, Milano, Raffaello Cortina 2000
- Pietropolli Charmet G., *Ragazzi sregolati. Regole e castighi in adolescenza*, Milano, Franco Angeli, 2001
- Pietropolli Charmet G., *Amici, compagni, complici*, Milano, FrancoAngeli, 1997
- Palmonari A., *Gli adolescenti*, Bologna, Il Mulino, 2001
- Palmonari A., Speltini G., *I gruppi sociali*, Bologna, Il Mulino, 1998
- Putton A., *Empowerment e scuola*, Roma, Carocci, 1999
- Ravenna M., *Carnefici e vittime*, Bologna, Il Mulino, 2004
- Regoliosi L., *La prevenzione del disagio giovanile*, Roma, NIS, 1994
- Rossi Doria M., *Di mestiere faccio il maestro*, Napoli, Ancora del Mediterraneo, 2002
- Sharp S., Smith S., *Bulli e prepotenti nella scuola*, Trento, Erickson, 1996
- Vegetti Finzi S., Battistin A.M., *L'età incerta i nuovi adolescenti*, Milano, Mondadori, 2000
- Watzlawick P., Beavin J.H., *Pragmatica della Comunicazione Umana*, Roma, Astrolabio, 1971
- Zani B., Polmonari A., *Manuale di psicologia di comunità*, Bologna, Il Mulino, 1996

Artikulu hau erabiltzeko jatorrizko iturria eta web-orria aipatu behar dira. [www.golden5.org](http://www.golden5.org) web-orriko informazio guztiak copyright eskubideak betetzen ditu.

## GOLDEN ARLOAK



### IKASKETA DOITUA

Por Knud Jensen, Frode Joseng y Maria José Lera (2007)

#### Aurkibidea:

Zer da ikasketa doitua?.....	1
Oinarrizko irizpideak.....	3
Aniztasuna ikasketa doituan.....	5
Ikasketa doiturako estrategiak: funtsezko GOLDEN urratsak.....	10

#### Zer da ikasketa doitua?

Eskola “inklusibo edo integratzaile” bat ikasle guztiei beren beharretara egokituriko ikaskuntza izateko aukera eskaintzen dien erakundea da, gizarte bateratu eta komunitate kultural eta akademiko baten esparruan. ( Lysberg og Uthus, 04)

Politikoki, “ikasketa doituari” buruzko teoria eskola “eraginkorraren” pentsamendu-ildoaren eta eskola “inklusiboaren” (integratzailea) ikuspegiaren artean dago. Lehen eskolak arreta emaitzetan eta ikasle, ikastetxe eta herrien arteko alderaketan eta lehian jartzen duen bitartean, bigarrenak partaidetza, lankidetzak, elkartasuna eta aukera-berdintasuna nabarmentzen ditu, Unescoren irizpideei jarraituz (Salamanca Deklarazioak, Mayor Zaragoza, 1994).

Ikasketa doituari buruzko gogoeta egiten dugunean, bi ikuspuntu aurkitzen ditugu:

- Ikasketa Doitua gizabanakoaren eskubide modura, heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei ematen zaien arretaren aldetik ikusita.



- Ikasketa Doitua ikasleak norbanakoa eta positiboa den ikasketa-prozesu batean, bere gaitasun guztiak hobetzeko eremurik onenean alegia, murgiltzeko eskubide modura.

Bi ikuspuntu horiek batzen baditugu, esan dezakegu Ikasketa Doitua gizabanakoaren ezaugarrietara gehien egokitzen den hezkuntza-prozesua bizitzeko eskubidea dela, zeinak denentzako lekua diren ikasgela eta ikastetxeetan ikasteko modu aberatsagoa eskaintzeko erronka dakarren.

Ikasketa Doituaren helburu nagusia beste ikasle batzuekiko konparazio soziala murriztea da. Ikasleek ikusten dute beren burua euren prozesuaren barnean, eta eginiko aurrerapena eta beren helburuak alderatzen dituzte. Zentzu horretan, bere autoestimuari eusteko eta garatzeko, eta ikasketarako izaera positiboa eraikitzeke gai da.

Ikasketa Doituak bi ikuspegi desberdin izan ditzake. Bata norbanakoari doitzea da. Ikuspegi horren arabera, ikasle bakoitzak bere premietan, interesetan eta maila akademikoan oinarrituriko ikasketa-plana du. Norbanakoaren jarraipen hori, askotan utopiatzat jotzen da, ikastalde arrunt batean indibidualizazio-maila hori lortezina ikusten baita. Uste dute lan handia emango diela eta ikasketa-prozesu desberdin asko direla aldi berean kontrolatzeko.


Beste ikuspegia ikastalde aberastuarena da. Horrek esan nahi du ikasgelaren ingurunea aukera eta baliabidez beteta dagoela, eta ikasleak bere aukera egin dezakeela hainbat maila, zeregin, leku eta ikasteko estrategien artean. Horrela bada, ikasleak kontrolatzen du bere ikasketa-prozesua. Irakasleen zeregina ikaslea bere hautaketan gidatzea eta aukera eta jarduera anitzak antolatzea da. Ikuspegi batean zein bestean ikaslea subjektu aktibotzat hartzen dugu, eta ez objektu pasibotzat. Beharbada, desberdintasun nagusia datza arreta, norbanakoaren premietan jarri beharrean, taldearen premietan jartzean.

Praktika inklusibo/integratzaileak ondoko osagai hauek eskatzen ditu (European Agency,01):

- Irakasleen jarrerak.
- Irakasleak metodoa aukeratzea.
- Lanerako materialaren hornikuntza.
- Denbora-esparrua.
- Aniztasunarekin lan egiteko trebetasunak
- Ikasgelan harremanak eraikitzearekin loturiko trebetasunak bereziki.

## Irizpide nagusiak

Erlazio bidezko eredu didaktikoa (Bj0rndal and Lieberg, 1978) “ ikasketa doitua” planifikatzeko modu bat da, era sistematikoagoan egiten lagundu ahal diguna.



1 Irud.– Erlazio bidezko eredu didaktikoa (Bj0rndal og Liberg, 1978)

Plangintza egiterakoan bost osagai horiek kontuan hartu behar dira, eta aldi berean haien arteko loturarik estuena lortu behar da. Pentsatu behar da zer lortu nahi den, zer eduki jorratuko diren, lana egiteko moduak, ikasleen mailak, eta alderdi horiek guztiak testuinguru jakin batean, une eta egoera batean kokatuz, hala nola, bakearen eguna, oporren etorrera edo denek bizi izan duten gertaera garrantzitsu bat.

Irakasle gehienek uste dute “ikasketa doitua” praktikan jartzea oso zaila dela, eta errudun sentitzen dira ezin dituztelako zenbait ikasle ikasgelan kontrolatu. Statped.Marit Mj0sek Norvegian eginiko ikerketa batean, Doktorgradeak dio irakasleen % 75 bat datorrela eskola inklusiboaren eta ikasketa doituaren irizpideekin. % 60k uste du zaila dela ikasgelako eguneroko jardunera moldatzea, %35 saiatzten da ezartzen. Orokorrean ikastetxearen administrazioaren garrantzia aipatzen dute, dinamika horren aldeko jarrerak eta eskumenak; aldi berean garrantzizkoa deritzote hezkuntza bereziko irakasleak eta irakasle orokorrak indarrak batu, eta elkarrekin lana eginez, elkarreraginean ikasteari.

“Ikasketa doituari” oinarrituriko eskola “inklusiboa edo integratzailea” sortzeko kontuan izan behar ditugu honako irizpide hauek:

- **Testuingurua:** Ekonomikoa, eskola-eraikinak edo -instalazioak, helduen gaitasunak, jarrera eta balioak, programak, ikasteko tresneria eta curriculumak.
- **Prozesuak:** Ikasgelako jarduera bateratuak; ikasgelako dinamika antolatze modua, autonomia zein jarduera; ikasleen erantzukizuna; garrantzia; ikasleen zentzu eta sentimenduak.
- **Emozioak:** Nola sentitzen dira ikasgelan eta eskolan, sozialki eta ezagutza aldetik, euren itzaropenari, motibazioari, segurtasun-sentipenari, autokonfiantzari eta autoestimuari dagokienez.

“Ikasketa doituan” oinarrituriko eskola “inklusiboa edo integratzailea” sortzeko lau oztopo nagusi ikusiko ditugu: (Ogden, 04):

- **Inplementazioaren arazoa:** Irakasleek, beren geletako erregeak izatera ohituta egoteaz gain, ez diete behar adinako garrantzia ematen hezkuntza-ebaluazioei, eta esperientzia eskasa dute hezkuntza-ingurunerik onenak antolatzen.
- **Aniztasunaren arazoa:** Irakasleei sortzen zaien galdera da eskolak nola erantzun diezaiekeen aniztasunari, premia desberdinei, motibazioari, trebetasunei, ahaleginei, erritmoei eta abarri. Bereziki eskola-liburuek ez dutenean ikasle-aniztasuna jasotzen.
- **Garrantziaren arazoa:** Zer egin dezakegu ikasle gehienek eskolan ikasi egiten dutela senti dezaten, eta gainera euren bizitzarako garrantzizkoa dela. Eskola batik bat curriculumean oinarritzen da, eta zerikusi gutxi du ikasleen interes eta premiekin.
- **Kontrolaren arazoa:** Eskolaren testuinguruan ikasleek askatasun handiagoa izateak kontrol handiago eskatzen du irakasleen aldetik. Askatasun handiagoak helduek hainbat trebetasun eta gaitasun izatea ere eskatzen du. Eta askatasun handiagoko ingurune batean ikasleek beste trebetasun batzuk erabiltzen dituzte ikasteko, beren aukerak egiteko, lehentasunak jartzeko, denbora modu eraginkorrean erabiltzeko, beren ikasketa-prozesuak arautzeko. Askatasunaren eta kontrolaren arteko oreka lortzea ez da erraza.

Arazo horiek erlatibizatu egiten dira hezkuntza inklusiboaren helburuak gogora ekartzen ditugunean:

- Konparazio soziala gutxitzea.
- Trebetasun akademikoak hobetzea.
- Norberari buruzko pertzepzioa hobetzea.

Aldi berean, alderdi horiek ikasgelan ikasteko giro ona sortzen laguntzen dute, eta horrek inklusio- eta lankidetzajarrerak sustatzen ditu.

Norberaren eta taldearen pertzepzioa alderdi garrantzitsuak dira eta entzuleria modura jokatzeko dute. Gainera, marko teorikoan aipatu genuen bezala, taldearen eraginak nabarmena dena (positiboa zein negatiboa) sustatzen du. Ikuspegi horretatik, norberaren pertzepzio subjektiboa

funtsezkoa da bere eskola-arrakasta edo –porrota ulertzeko. Pertzepzio negatibo horiek orekatzeko estrategietako bat Empowerment kontzeptua da, pertsona batek bere bizitzan eta ikasketa-prozesuan duen kontrola eta eragina indartzen dituena. Indartsuago, seguruago eta askeago sentiaraziko gaitu, eta, ondorioz, gure helburu eta lehentasunak lortzeko aukera gehiago izango ditugu (Bj0rn og Manger, Terje-Fagbokforlaget, 2005)

Empowement-ak autonomia edo erabakiak hartzeko eta aukerak egiteko gaitasuna lantzea eskatzen du, eta baita gaitasun-sentimendua, ingurunearekiko eragina, eta pertsona horren garrantzia eta esanahia. Golden programaren estrategiak ikasleei boterea ematen saiatzen badira, zalantzarik gabe, estrategia horiek "ikasketa doituan" erabiltzeak gaiari aurre egiteko eta ekiteko moduari eta, orokorrean, ikaslearen doitze akademikoari eragingo dio.

Norbera bere ikasketa-prozesuan aktiboa izatea funtsezkoa da garapenerako; aktibotzat uler daiteke ariketak egitea – ulertu izan ohi den bezala -, baina pertsona bat benetan aktiboa dela ikusten dugu erabakiak hartzen dituenean, eta jarduera guztiak kontuan hartu ondoren, berak aukeratutakoak egiten dituenean. Horretarako funtsezkoa da ikasleek beren ikasketa-prozesurako erabaki garrantzitsuak hartzea. Bide horretatik, Norvegiako ikasleei galdetu zaienean zein neurritan inplikatzin diren jarduera akademikoetako erabakietan, emaitzek diote gehiago sakondu nahi dituzten zenbait gai eta baita lan egiteko modua aukeratzin hasi direla.

<b>Erref. Elevinspekt0reren 2002/2003 N= ca 18000</b>	<b>EZ</b>	<b>PIXKA BAT</b>	<b>NAHIKO</b>	<b>BAI</b>
<b>Zeure lan-egitaraua sortzea</b>	<b>% 38,07</b>	<b>% 33,86</b>	<b>% 23,96</b>	<b>% 4,11</b>
<b>Zertan gehiago saiatu aukeratzea eta zenbait gairi buruz gehiago ikastea.</b>	<b>% 18,02</b>	<b>% 35,33</b>	<b>% 38,27</b>	<b>% 8,38</b>
<b>Lan egiteko modua aukertzea.</b>	<b>% 12,58</b>	<b>% 31,76</b>	<b>% 42,54</b>	<b>% 13,12</b>
<b>Ebaluatzeko modua aukeratzea</b>	<b>% 32,48</b>	<b>% 37,24</b>	<b>% 23,84</b>	<b>% 6,43</b>
<b>Ebaluazioak noiz egin aukeratzea, eta proiektuak eta lanak ematea.</b>	<b>% 40,87</b>	<b>% 31,74</b>	<b>% 20,03</b>	<b>% 7,36</b>

## **Aniztasuna ikasketa doituan**

Ikasketa doitua modu kualitatiboan zein kuantitatiboan egin daiteke. "Doitze kuantitatiboan" irakasleek ikasleei eskaintzen dizkiete lan egiteko moduari, edukiei, kopuruari, zailtasun-mailari eta beste hainbat gairi buruzko aldaketak. "Ikasketa doitu kualitatiboan" irakasleriaren, ikasleriaren eta familien arteko lankidetzaz-prozesu bat da. Irakasleak gida eta aholkularitza eskaintzen ditu, baina ikaslea da bere prozesuaren erantzukizun osoa duena.

Funtsean curriculuma ikasleriaren ezaugarri eta premia desberdinei doitu edo egokitu beharra sortzen da. Gogoratu behar dugu helburua ez dela curriculuma ikasle bakoitzari doitzea, baizik eta premiak ikusirik, ikasleen aniztasuna kontuan duen curriculum bat egitea eta lan egiteko baldintzak sortzea ikasgelan.

Doikuntzek adierazten dute ikasleek zer egingo duten, nola eta non kontuan izanik, hainbat aukera dituztela.

Honako hauek dira ikasleek, beren autonomia, erantzukizuna eta orokorrean empowermenta lantzen den bitartean, aukeratzeko ahalmena izan beharko luketen alderdiak (Håstein og Werner: Men de er jo sá forskjellige, Ad Notam, 2003):

1. Edukia (zer ikasi)
2. Lan egiteko modua (nola ikasi)
3. Plangintzan parte hartzea (nola egin)
4. Aurkezpenean parte hartzea (nola aurkeztuko den)
5. Ekimenak onartuz (proposamenak, irtenbideak, aukerak)
6. Ebaluatuz (ebaluazioan parte hartzea, eta nola izango den ebaluatua erabakitzea)

Aniztasunean eta ikasketa doitan oinarrituriko eskola eraiki nahi badugu honako zazpi kategoria hauek azpimarratu behar ditugu: (Dale og Waernes, 04)

1. Ikasleen gaitasunen, maila eta premia berezien arteko desberdintasunak.
2. Curriculuma, banakako lan-planak eta malguak.
3. Mailak eta denbora.
4. Eskola-egunaren antolaketa.
5. Ikaskuntza-arloak eta materialak.
6. Lan egiteko moduak eta metodoak.
7. Ebaluazioa.

Horrek esan nahi du ikasgelari askotariko esperientziak eskaini behar zaizkiola. Ikasleari bere mailari egokitutako jarduerak eta bere ikasketa-prozesua errazten dutenak egiteko aukera eskaintzeaz gain, heziketa aktiboki gauzatzeko aukera eskainiko zaiola, estrategien, metodologiaren eta ebaluazioaren aukeraketaren bidez.

Erronka da aniztasuna, geletan, irakasteko moduetan sartzea. Erronka horren aurrean irakasle askok honako arrazoi hauek argudiatzen dituzte: gaitasunik eza, ikasle askoko gelak, baliabiderik eza, familien itxaropenak, azterketak eta notak (Skaalvik og Fossen 1995; Monica Dalen 1994). Ulertzen ditugu argudio horiek, baina gure geletako errealitateak metodologia-aldaketa behar du, gelaren ezaugarrietara egokituagoa, eta oinarritzko printzipio baten arabera, ikasgelak anitzak badira, ikasgeletako aukerak ere anitzak izan beharko lukete.

Bitxia bada ere, gehien erabiltzen diren irakaskuntza-metodoen bilakaerak nolabaiteko lotura du Psikologia Sozialetik garatutako jendetza handiak manipulatzeko estrategien bilakaerarekin. Berrogeigarren hamarkadako lehen urteetako ikerketek azpimarratzen zuten zer pertsuasio-estrategia erabili behar zituen publizitateak mass-media delakoarengan eragiteko, mass-media delako hori osotasun homogeneousat hartuz. Ikerketek zioten metodo horiek eragin eragiten bazuten ere, emaitzetan norbanakoen desberdintasunek eta premiek eragiten zutela. Desberdintasun horiek aztertu ziren, eta ikaslearen "interesa"ren garrantzia nabarmendu zen. Norbanakoen premiei erantzutea ezinezkoa zen, eta horregatik 70. hamarkadaz geroztik target-groups edo ezaugarri jakin batzuk dituzten taldeekin lan egiten dute, eta publizitatea talde-tipologiei bideratzen zaie, askotariko interesetara iristen saiatuz, ahalik eta entzuleria handiena lortze aldera. Ordura arte entzuleria pasibotzat jotzen zen, gaur egun aktibitatea ikertzen ari dira.

Hezkuntza-esparruan, ohiko teknikak edo ikasgela talde homogeneousat hartzen zutenetik, desberdintasunak, batez ere norbanakoenak, kontuan hartzen zituzten estiloetara igaro zen. Gaur egun, aldaketa datza taldeari bere osotasunean erantzutean, kontuan hartuz ikasleriak bere ikasketa-prozesuko aldi guztietan aktiboa izan behar duela.

Ondorio modura esan dezakegu eskola inklusibo/integratzaile bat eraikitzeke ikasle bakoitzari bideratutako baliabide orokorrak gehitu edo daudenak birbanatu behar ditugula, era honetan:

- Informazio-teknologiak erabiliz (IKT).
- Ikasleek lan bereizi gehiago erabiliz.
- Berdinak baliabide bezala erabiliz beste ikasle batzuentzat.
- Ikasgela eta ikasgaien azpiegituretan eta horiek antolatzeko eran aldaketak eginez.

Hori gauzatu eta eskola inklusibo bat lortzeko, lankidetzaz sustatu behar dugu heziketa bereziaren eta arruntaren artean, familiaren eta ikastetxearen artean eta ikasleriaren eta irakasleriaren artean. Ikasleei norbanako laguntza estrategikoa eman behar diegu, ikasketa-estrategietan oinarritua, eta orokorrean, eskolarekiko eta ikastearekiko jarrera positiboak eraki behar ditugu.

Ikasketa doitua ideia nagusiak honako hauek direla esan dezakegu: (Werner, 98)

- Ikasleen eta irakaslearen arteko harremanak positiboak eta eraikitzaileak izan behar du.
- Ikasle bakoitza baloratu behar da.
- Ikaskuntza-prozesuak eta ikaskuntza-inguruneak ziurrak izan behar dute
- Doitze sistematikoa lortu behar dugu, harreman-eredu didaktikoen bidez.
- Ikasleek ikasteko motibazio-maila altua izan behar dute.
- Ikasleen partaidetza-mailak eta erantzukizunaren garapenak altuak izan behar dute.

Alderdi horiek eskolako eguneroko bizitzara ekartzeko, irakasleek elkarrizketa egituratuak antolatu behar dituzte ikasleen artean, ikaskuntza-elkarrizketa sistematikoak, eguneroko bizimoduan prozesu-bideratze bat egin eta familiekin bilera sistematikoak antolatu, lehentasunak elkarrekin ezartzeko.

Ingurune "inklusibo batean", ikasleak aldatzeko eta hautatzeko aukera asko izan behar ditu. Ikasleek gai izan behar dute hainbat zereginen, ikasteko strategiaren, arazoak konpontzeko moduren artean eta non eta norekin lan egin aukeratzeko.

Ikasleek ere gai izan behar dute laguntza non lortu aukeratzeko: irakasleengan edo beste ikaskide batzuegan. Baloratuak, aintzakotzat hartuak eta indartuak sentitu behar dute, horretarako feed-back positiboak eta autoebaluazioa izan behar dute. Norbanakoaren ikuspegiak sendoa izan behar du; ikasle bakoitzak bere ezaugarrietan eta indarguneetan oinarrituriko eginkizun positibo bat du, denen onerako bideratua. Norbanakoari





Aipatutako guztia “giro inklusibo” batean egin behar da, esperientzia bateratuetan, elkarrenganako begirunean eta ikasleek erronka sozialak eta ikasleen arteko ezagutza-trukaketa lortuko dituzten zereginetan oinarritua.

Ikasleriari aniztasuna eskaintzeak ikasgelan askotariko jarduerak egin ahal izatea esan nahi du, aukera egitea ahalbidetuko duena, giro egoki bat ahalbidetuko duen kontrol baten barnean. Hori lortzeko hiru, lau edo bost lan-ingurune koka ditzakegu ikasgelan, kontuan hartu nahi ditugun irizpideen arabera sailkatuak. Esate baterako, ikastaldea hiru edo lau taldetan bana dezakegu, talde bakoitzari jarduera jakin batzuen ezaugarri izango den kolore bat emanaz. Ikasleek taldea aukera dezakete.

- Zeregin berdeak: aukeratzeko askatasun handiko jarduerak.
- Zeregin horiak: jardueren erabakia ikasleen eskuetan baino gehiago irakasleenean dago.
- Zeregin gorriak: irakasleek ezartzen dute araua eta erabakitzen dute.

Funtsean, ikasgelan hainbat ikaskuntza-estilo, lana egiteko modu, zailtasun maila, etab. eskaintzen dituen aniztasun bat eskaintzean datza. Konbinazio ugari egin daitezke, baina adibide modura honako hauek egin daitezke:

- Eduki-aniztasuna (lau ikasgai)
- Lana egiteko askotariko moduak (bakarka, bikoteka, edo taldean)
- Zailtasun-aniztasuna (errazak; berdinen laguntza izanez gero errazak; irakaslearen laguntzaz bakarrik egin daitezkeenak)
- Adierazpide-aniztasuna (marrazkia, idazketa, eskulanak, irakurketa)



- Izaera eta aukeraketa aniztasuna: askeak (sortzaileak, norbanakoak erabakitzen du), erdiegituratuak (arau batzuk ezartzen ditu), egituratuak (oso gidatua).

Ikasleek aukera egin ondoren, aldatzeko irizpideak zehaztu egin behar dira. Esate baterako, denbora batez egindako aukeran jarraitu behar dute (eskola bukatu arte), edo zereginari begira ( lan hori bukatzen denean).

Ikasgelan proiektuak gauzatzeko jarraipena ezartzen die jardueri, eta horrek ikasleentzat esanguratsuago bihurtzen ditu. Proiektuak garatzea erraza da kontatu edo esplora daitezkeen irakasgaietan, eta bere errendimendua areagotuko duen jarduera motibagarri batean sartzeko aukera ematen diote taldeari.

Historia-proiektuek joko handia ematen dute. Aukera ematen dute egoerak birsortzeko; antzerkia, bizimoduak, musika, jantziak, artea txertatzeko, eta hori ikaslearen interesekin lotzea erraza gertatzen da. Erraza da diseinatzea ere ikasgelan aldi berean lan egingo duten hainbat lan-talde, bakoitza proiektu bereko atal desberdin batekoa. Haur hezkuntzan ikasgela hainbat lan-txokotan banatzeak, ikasleei aniztasuna eskaini beharrak baliabide-antolaketa zein proiektukako lana dinamikoak izatea dakar, eta horiei buruz oraindik zer ikasi handia dugu.

“Ikasketa doiturako” irizpideen bilduma:

- Ebaluazio pribatuak suspertzea, eta ez publikoak.
- Ikasleen artean, banakako eta guztien helburuen eraketa sustatzea.
- Banakako ikaskuntza-estrategien erabilera sustatzea.
- Banakako lan-planen erabilera.
- Banakako aurrerapena eta lorpena, zein banakako aurre egitea ardatz modura hartzea.
- Ikasleen esperientzia eta interesak erabiltzea eguneroko bizimoduaren, etorkizunaren eta beraiek ikastetxean ikasten ari direnaren artekoaren lotura eta zentzua sustatzeko.
- Ikasleari menderatze- zein erronka-zentzua ematea.
- Ikasleari sentiaraztea hutsegite eta akatsak egitea ikaskuntza-prozesuaren parte dela.
- Ikasleek eskolan eta euren ikaskuntza-prozesuan duten eragina areagotzea.
- Ikastetxea talde-antolaketarekiko malguagoa egitea, ikaskuntza-arlo gehiago sortuz (ikasgelak, talde-aretoak, korridoreak, ikastetxearen inguruneak)
- Ikasleei aukera gehiago eman ikasteko denbora eskola-orduetan eta eskola-egituraren barnean egin ahal dezaten.
- Etxeko lanak ikastetxean, helduen laguntzarekin egitea (behar dutenentzat)

- Autoebaluazio-sistemak garatzea ikasleentzat.

## **Ikasketa doiturako estrategiak: GOLDEN funtsezko urratsak**

Ondoren funtsezko zenbait urrats proposatzen ditugu ikasketa doituarekiko hastapenak errazteko, aurretik aipatutako zenbait alderdi azpimarratuz, hala nola: ikasleriaren interesa eta aukeratzeko ahalmena bermatzea, ebaluazioa zaintzea eta hezkuntza-baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea.

Orokorrean denek irizpide berak partekatzen dituzte. Horietako batean arreta jarri eta saia zaitetz burutzen, ikasgelak nabaritu egingo du.

### **AUKERA ETA INTERESA**

Aukeratzeko gaitasuna izatea funtsezko ezaugarria da motibazioa eta erantzukizuna areagotzeko. Hori dela eta, oso garrantzitsua da aukera egitera behartzen saiatzea, kuantitatiboa zein kualitatiboa delarik, adibidez, proposaturiko bost jardueretatik ikasleek 3 egin ahal izateko aukera gehitzea. Aldaketa txiki bat da, eta aldaketa esanguratsuak dakartza. Gai desberdinetan eta gai horiei heltzeko modu desberdinetan sakontzeko aukera errazten bazaie, motibazioa are handiagoa izango da (adibidez, informazioa bilatzea ordenagailuan, entziklopedietan, ahozko testigantzetan, argazkietan, ...)

#### **Funtsezko urratsak**

*Ikasleek hainbat zeregin, maila edo lan-estrategiaren artean egin dezakete aukera. Aukera hori gaitasun akademikoetan oinarrituko da eta ez du konparaziorik bultzatuko. Golden ikasle bezala aukeratu ditugunek beren zereginak behar bezala egiten dakitela ziurtatu behar dugu.*  
*- Ikasgaiak antolatu behar ditugunean ikasleen interesak eta esperientziak erabiltzea.*

### **EBALUAZIOA**

Ebaluatzea egunero egin ohi dugun ariketa bat da, baina batzuetan ez gara konturatzen duen garrantziaz. Ebaluazioaren helburua zer hobetu behar dudan jakitea da, are gehiago lortzeko, eta ez zerbait lortu ez dugulako zigortzea.

Ikuspegi horretatik garrantzi handikoa da positiboki ebaluatzea eta lortu dena azpimarratuz. Aurrerago azaltzen da nola lortu huts egin dugun hura, berriro egin behar duenerako estrategia hobeak ematen dizkiogula ziurtatuz.

#### **Funtsezko urratsa**



- *Liburuak eta lanak zuzentzeko orduan arkatz berdea erabiltzea gorriaren orde, zuzena dena, hobetu daitekeena, etab. azpimarratuz .*
- *Ebaluazio hori modu pribatuan egingo da, helburua ikaslearen errendimendua hobetzea baita, ez bere emaitzak publiko egitea sari edo zigor modura.*
- **Funtsezko urratsak**
- *Ikasleriaren ebaluazio pribatua, ez ikaskideen aurrean modu ofizialean. Modu pribatuan hitz egitea ikaslearekin eta hobetzeko moduari buruzko informazio zehatza ematea.*
- *Ikaskuntza-prozesua eta autonomia hobetzeko ikasketa-estrategia pertsonalak azpimarratzea.*

### **HEZKUNTZA-BALIABIDEAK**

Aniztasuna lantzeko modu horrek heziketa bereziko irakasleek irakasle-tutorearekin, gela berean, lan egitea eskatzen du. Lankidetzan hori oso aberasgarria gerta liteke, zenbait saiotan ikasgelan heldu bat baino gehiago egongo baita, eta, aldi berean, oso baliagarria ikasgaiak prestatzeko eta saioak antolatzeko. Berdinek ikasgelan duten egitekoari askotan ez zaio jaramonik egin. Baliabide hori ikasgelan sistematikoki erabiltzeak ikasketa-estrategia desberdinak eskaintzea eta ikasgelako giza-baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzea dakar

Irakaskuntzan maiz erabilitako hezkuntza-baliabide bat testuliburuak dira, ikasle mota batentzat eginak direnak, eta nekez eman ahal diotenak aniztasunari behar bezalako erantzuna. Testuliburuak ikasgelako beste baliabide bat izan beharko lukete, beste liburu, entziklopedia, internet, landa-lan, bisita, esperimendu eta jolas batzuekin, eta irakasleriak eta gizarteak orokorrean eskuragarri dituen hainbat baliabiderekin batera erabiltzeko. Horregatik azpimarratzen dugu nork bere kasa ikasteko materialaren erabilera, hau da, irakasleek sortu edo aukeratutakoak ikastetxe horretako ikasle horientzat, beraientzat egokienak direlako. Hori ikasleek eurenganako interes seinalatzat hartuko dute, aurreko ataletan aipatu den bezala.

Antolaketa horrek banakako erregistroa eta ikasle bakoitzeko lan-egitasmo bat egiteko aukera emango digu. Bakoitzak bere erritmoa eta bilakaera izango du, eta bere helburuak lortuko ditu, bere trebetasun eta interesen arabera.

#### **Funtsezko urratsak**

*Hezkuntza berezia ikasgelatik atera gabe edo hari estuki lotuta.*

*Nork bere kasa ikasteko materiala.*

*Ikasleak ebaluatzeko autoebaluazio sistemak erabiltzea.*

*Ikasleak beren ikaskideei laguntzeko baliabide modura erabiltzea.*

*"Golden pupils" delakoei ikasgelan, laguntza gehiago eta, zenbait arlo akademikotan, arreta handiagoa ematea.*

*Lan-egitasmo bat erabiltzea ikasteko eta bereizgarri modura.*

### **Aipamenak:**

BjOrndal B og Lieberg S : Nye veier i didaktikken? En innføring i didaktiske emner og begreper, Aschehoug, Oslo, 1978.

Dale, Erling og Wærnes, Ingrid : Utdanning nr 3, 2004.

Furman, Anne : "Instructive assessment and effective classroom practice" 2004



**GOLDENS PROGRAMMA**  
**Golden arloak : ikasketa doitua**

19090- 2004-1-COM-1-2.1.

Gundem,B. : Skolens oppgave og innhold. Universitetsforlaget 1991.


Lysberg, Julie og Uthus Marit, Spes.ped nr 9, 2004.

Ogden, Terje, Bedre Skole nr 4 , 2004

Werner, Sidsel, Spes.ped nr 8,1998.

Artikulu hau erabiltzeko jatorrizko iturria eta web-orria aipatu behar dira. [www.golden5.org](http://www.golden5.org) web-orriko informazio guztiak copyright eskubideak betetzen ditu.

## GOLDEN ARLOAK



### FAMILIA ETA ESKOLA

Knud Jensen , Frode Joseng eta Maria José Lera (2007)

Aurkibidea:

Harremanen garrantzia.....	1
lankidetzeta- eta ulermen-maila.....	3
Gurasoen parte-hartzea.....	4
Familia-eskola harremana hobetzeko estrategiak: GOLDEN funtsezko urratsak.....	7
Aipamenak.....	9

#### Harremanen garrantzia

Familiaren eta eskolaren arteko harremana Golde5 proiektuko oinarri garrantzitsuenetako bat da. Europa osoan, familien babesa eta itxaropenak oso desberdinak dira. Familien jarrera zein irakasleena bereziak eta bakarrak izango dira herri bakoitzean eta eskualde bakoitzeko ikastetxeak desberdinak izango dira. Desberdintasun horiek kontuan izanik, proiektu osoko zeharkako helburua eta nagusia "familien, ikasleen eta eskolaren arteko lankidetzeta-giroa sortzea da, elkar errespetatu eta ulertuz, lorpen akademikoak hobetzeko eta gelan egokitze soziala areagotzeko

Bi arrazoi nagusi daude familia eta eskola lotzeko, bata legegintzazkoa eta bestea kontzeptuzkoa.

Legegintzazko arrazoiak legeetan du oinarria. NBEren Giza eskubideen Aitorpenak, 1984. urteaz geroztik, ezartzen du gurasoak direla beren seme-alaben heziketaren erantzule nagusiak (26. artikulua 3. atala). Norvegiako Adingabearen Legean gurasoek seme-alaben hazkuntzan duten garrantzia azpimarratzen da, babestu eta ahal duten neurriko heziketa emanez.

Hezkuntza Legeak (1. artikulua) dio eskolaren eginkizuna familiekin euren seme-alaben hazkuntza eta heziketan elkarlanean aritzea dela. Argi jasota dago familiekin dutela beren seme-alabak hazteko erantzukizuna; hori dela eta, beraz, ikasgai nagusienetako partaide izan behar dute (97, 30)

Marko teorikoak ere familien rola garrantzia azpimarratzen du neska-mutilen eskolako arrakastan (Birkemo, 2002; Ungí Norge, 1992; PISA txostena, 2003; Bo, 2002 eta Siles, 2003). (ELGA) Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen 1997ko "Gurasoak eskolako ikaskide modura" artikuluan, familiaren eta eskolaren arteko harremana aztertzen da. Artikuluak azaltzen du gurasoen ekarpenak beren seme-alaben eskolako hobekuntzan eragin handia duela; beraz, argi geratzen da elkarrizketa eta lankidetzaren maila guztietan sustatzeak duen garrantzia eta batez ere urterik goiztiarretan harreman onak eraikitzeak. Kanadako proiektu batek (Coleman eta Collinge, 1993) erakusten du eskolarekiko gurasoen jarrera positiboek eragina dutela haurren poztasunean eta motibazioan. Eskola behartuta dago gurasoen partaidetza eta lankidetzaren sustatzeri; izan ere, neska-mutilen eskolako emaitzak hobetzeko eragilerik garrantzitsuenak dira.

Neska-mutilentzat garrantzi handikoa da inguruan dituen helduen arteko harremana positiboa dela nabaritzea. Datuek frogatzen dute lankidetzaren jardueretan esperientzia ona izan eta helduekin harreman onak dituzten neska-mutilek arrisku gutxiago dutela euren garapenean, eskola-arazoetan zein eskolaz kanpoetan. (Parra eta Sánchez, 2002; Wentzel, 1998).

Eskolako lorpenen % 23 familiaren babesarekin lotu daitezke (Berg 2002). Horrek adierazten du familiaren eta eskolaren arteko harremanen kalitatearen, eskola-lorpenen eta eskola-doikuntzaren artean korrelazio ona dagoela (Stortings melding 14, 1997-98). Neska-mutilen eskolako lorpenen bi eragile nagusiak gurasoen heziketa-maila eta familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren kalitatea dira (Nordahl 2006).

Neska-mutilen hazkuntza eta heziketa gurasoen erantzukizuna dira, eta eskolaren rola bi zeregin horietan familiei laguntzea da. Familien eta eskolaren arteko harreman on batek eragin positiboa izango du motibazioan, eta epe luzera, ezarritako helburuen lorpena ekarriko du (NOU 1995; Wentzel, 1998).

Gurasoen babes soziala eta akademikoa nabaritzeak neska-mutilen gaitasun-zentzuan, ikasgaietako interesean, eskolako lorpenetan eta harremanak sortzeko motibazioan eragina izango du (Wentzel, 1998).

Ikasgaietan gurasoen babes hori ez duten neska-mutilengan estresari loturiko gaixotasunak jasateko arriskua hirukoiztu egingo da.

(buruko mina, urdaileko mina, muskuluetakoa mina, eta hazteko arazoak ). Oso harreman estua dago familiaren babesaren eta ikasleen jokaera, errendimendu akademikoa eta beren buruarekiko segurtasun sentipenaren artean (Coleman et.al. 1996).

## Lankidetzak- eta elkar ulertze-mailak

Thomas Nordahlek (2006) familiaren eta ikastetxeen arteko hiru lankidetzak-maila eta hiru elkar ulertze-maila ematen ditu aditzera.

Lankidetzak-mailak:

- 1. maila: Ordezkaritza-lankidetzak: gurasoek erakundeetan parte hartzea eskatzen du.
- 2. maila: Zuzeneko lankidetzak: elkarriketak, ulermena eta ikasleen, familiaren eta ikastetxearen arteko adostasunak
- 3. maila: Zeharkako lankidetzak, familiak seme-alaben eskolako errendimendua hobetzeko egiten dituen zeregin guztiak biltzen ditu.

Informazio-mailak:

- 1. maila: bi norabideko informazio trukaketa.
- 2. maila: elkarriketak: ikasleei eragiten dieten gaien buruzko komunikazioa eta eztabaia.
- 3. maila: ekarpena eta eragina: elkarrekin adostutako erabaki garrantzitsuak.

Familia, orokorrean, pozik dago informazio-mailarekin. % 75ek uste du ez duela eskolarekiko benetako eta bidezko harremana. Bostetik lau ez daude ados 3. mailarekin, eta uste dute eskolan duten eragina oso txikia dela. Familia-eskola harremanetan esperientzia ona duten gurasoen seme-alabek, gehienetan, eskola-erantzukizunak izaten dituzte, eta ez dute arazorik sortzen. Arrakastarik handiena lortzea eta eskolara ondoen egokitzea estu-estu lotuta daude eskolarekin harremanetan dauden familiekin eta harengan eragiten dutela uste dutenekin.

Eskolan porrot egiten duten neska-mutilen gurasoek, ziurrenik uste izango dute beren familia-eskola harremanak, nagusiki, norabide bakarreko komunikazioan oinarritzen direla. Eskolara gaizki egokitzen diren seme-alabak dituzten familien bi herenek uste dute eskolarekiko lankidetzak ez dela ona eta errudungilea dela.

Epsteinek (2001) familiaren eta eskolaren arteko lankidetzak sei urrats proposatzen ditu:



- o 1. urratsa: familientzako laguntza hazkuntzari dagokionez.
- o 2. urratsa: informazioa: familiak ikasgaietan heztea eta seme-alaben lorpenak komunikatzea.
- o 3. urratsa: borondatezko bertaratzea: gurasoak eskolara joatera eta gelako jardueretan parte hartzera gonbidatzea.
- o 4. urratsa: etxean ikastea: gurasoak ikasgaietan heztea.
- o 5. urratsa: eragina: familiak euren seme-alaben eskolako maila desberdineko gaietarako erabakiak hartzera gonbidatu.
- o 6. urratsa: eskola bere inguruarekin harremanetan jartzea: gizarte-baliabideak eta familia eta neska-mutilentzako zerbitzuak koordinatzea.

## Gurasoen parte-hartzea

Gurasoak oso baliabide garrantzitsua dira neska-mutilentzat. Haiek duten garrantziaz jabetu daitezenean hiru alderdi nagusi hartu behar dira kontuan: lehenik eta behin, esanguratsuak direla sentitu behar dute, eta laguntzeko arazoak ulertu behar dituzte, duen garrantzia eta nola lagun dezaketen. Bigarrenik, eragina dutela sentitu behar dute, eta ikusi behar dute beren ahalegina beren seme-alaben eskolako arrakasta bihurtzen dela. Hirugarrenik, gurasoek eskolaren babesa nabaritu behar dute, helburu bateratuak dituztela eta beren seme-alaben izenean ari direla lankidetzan.

Seme-alaben errendimendu akademikoa hobetzen laguntzeko egiten ari diren lana garrantzitsua dela ulertzen duten gurasoek, eta seme-alaben heziketarekin konprometitzen direnak, aldaketak eragin ditzakete beraien gain (Alter, 1982). Guraso eta seme-alaben arteko harremanak aldatzeko familia-sistemaren beste zenbait alderditan eragina izan dezake. Seme-alaben bizimoduaren aldaketek familiaren bizimoduaren aldaketa ekar dezakete. Eskolarekiko jarrera irekiagoak tokiko gizartearekin harreman handiagoa izateko aukera eman lezakete. Seme-alabei laguntzen dieten amek euren hezkuntza-egoera berrazter dezakete eta euren ibilbide akademikoa hasi. Horrez gain, Alterrek iradokitzen du guraso-taldearen sistemak sortzea elkarrengandik ikasteko, bakoitzaren egoera ezagutzeko eta, horrela, neska-mutilen bilakaeraren jakitun izanez.

Halere, NOVAko zenbait artikulutan (2000-2002), nabarmentzen dute familia eta eskolaren arteko harremanen egoera, orokorrean, ez dela behar bezalakoa. Eskola gehienei ez zaizkie gustatzen aurrea gehiegi hartzen duten eta gehitxo arduratzen diren gurasoak. Ondorioz, gurasoek zalantzak dituzte eskolak haien harremanaz eta lankidetzaz dituen itxaropenei buruz. Gurasoek ez dute beren burua berdintasun egoera batean ikusten familia eta eskolaren arteko lankidetzan; aldiz, irakasleek boterea dutela uste dute. Zalantza hori areagotu egiten da gurasoak etorkinak badira, ez dituztelako beste gurasoak ezagutzen eta eskolako bileretan ere gutxiago parte hartzen dutelako (Velchez, 2004).

Irakasleek erakundearen boterea dute, eta guraso askok haiek baino gutxiago direla uste dute, eta eskolako zigorren beldur dira; izan ere, eskola edo irakasleak kritikatzeko badituzte, beren seme-alaben kalterako izan daitekeela uste baitute. Gurasoek oso gutxitan jasotzen dute eskolaren aldeko gizarte-babesa, nahiz eta irakasleek *ematen dietela esan*. Gurasoek beren buruarengan konfiantza gehiago izan dezaten irakasleengandik gurasoenganako ekintzak sustatzea oso garrantzitsua da. Gizarte-laguntzan, goraipamenean eta adorean oinarrituriko komunikazioa erabakigarria da. Gurasoenganako atzerakadak egokia eta zehatza izan beharko luke, gaizki ulerturik izan ez dadin (Nordahl et al 2005).

Amak dira pertsona garrantzitsuenak familia eta eskolaren arteko harremanetan (Nordahl, 2006). Familia eta eskolaren arteko harremanaren % 70 edo % 80 neska-mutilen amek burutua da. Amek laguntzen diete seme-alabei eskolako lanak egiten; eskolak antolaturiko bilera eta jardueretan parte hartzen dute. Gurasoen bertaratzea hobetzeak eragin handia izango luke neska-mutilen eskolako arrakastan. Hala ere, amen edo aiten parte-hartzeak ondorio desberdina du neska-mutilen errendimenduan (Winquist, 1999). Lehen hezkuntza-mailatan gurasoen parte-

hartzera, aita eta amarena alegia, eskolaren eragina baino sei bider garrantzitsuagoa da eskolako arrakasta lortzeko. Ikasgela bateko guraso guztiek beren seme-alabei, neurri berean, laguntza eta adorea emango baliete, horrek eskolako errendimenduaren aniztasuna % 30 gutxituko luke (Desformes, 2005)

FUGen txosten batean (2005), gurasoek familia eta eskolaren arteko harremanetan parte ez hartzeko hamar arrazoi zehazten dira:

1. Guraso batzuek haur txikiak dituzte, eta ez dute zainduko dituen inor.
2. Guraso batzuek arratsaldeko eta gaueko lanaldiak dituzte.
3. Eskoletan ez dira gustura egoten, eskola-eskarmentu txarra izan zutelako beren garaian.
4. Ez dira bileretara joaten, ez dutelako uste garrantzizkoa denik.
5. Estresatuta daude eta arazoak dituzte.
6. Beren harreman girotik at daudela uste dute, eta ez dute beren buruarekiko ziurtasunik bileretara joateko.
7. Uste dute hizkuntza ez dutela ondo ezagutzen eta ez dutela ondo ulertuko.
8. Ezinezkoa iruditzen zaie, eta uste dute irakasleek jakingo dutela zein den hezteko modurik onena.
9. Zenbaitek uste du ez diotela esaten duena ulertuko, eta berak ez duela jakingo nola adierazi.
10. Batzuek uste dute eskolaren gaia irakasleei bakarrik dagokiela, ez beraiei.

Silesek (2003), horrez gain, zehaztu zuen familia eta eskolaren arteko harreman on baten eta kalitatezko irakaskuntzaren artean lotura bat dagoela. Eta gaineratzen du, eskola eta familia urruntzen diren neurrian, eskola-porrotaren eta kultura- eta gizarte-porrotaren arteko lotura nabarmena dela. Ikasleen bizimodu sozialaz eta familia-bizimoduaz arduratzen diren irakasleek ikasle horien motibazioan eragiten dute; izan ere datu gehiago dituzte, heziketaren plangintza egiterakoan, erabaki hobeak hartzeko.

Ikasleen bizimodua eta kultura-esperientzia ezagutzea oinarri on bat da ikasketa-prozesu on eta egoki baterako (Ericsson y Larsen 2000).

Familia eta eskolaren arteko harremana hein handi batean jarreretan datza. Irakasleek garrantzi handia dute harreman on baten garapenean (Chrispeels 1996).

Irakasle batentzat, honako honetan oinarritzen da harremana:

1. Irakasle bakoitzak ama eta aita bakoitzaren egoera bereziarekiko duen interes orokorra.
2. Irakasle bakoitzaren trebetasuna familiei buruzko estereotipoekin lan egiteko.
3. Irakasle bakoitzaren trebetasuna ikasle jakin batekin sistematikoki lan egiteko, harenganako interes

Cohének (1974) irakasleek familia eta eskolaren arteko harremanetan duten erantzukizuna azpimarratzen du. Honako gomendio hauek ematen ditu familia eta eskolaren arteko harremanetarako.

1. Gurasoengandik seme-alabei buruzko informazioa jasotzeko aurretiko jarrera.
2. Semeari edo alabari ikasketetan laguntzeko eskaintza komunikatzea.
3. Gurasoekin elkarlanean aritzeko gogoia duela komunikatzea.
4. Gurasoen kezkak eta seme-alabengan dituzten itxaropenak entzutea.
5. Etxeko heziketa osagarriarekiko interesa komunikatzea.
6. Helburu eta programak gelan azaltzea ikasle eta gurasoentzat.
7. Ikasleen aurrerapenen berri ematea.
8. Etxean seme-alabei ikasketetan laguntzeko zenbait ideia eskaintzea.
9. Gurasoen informazioa eta ideiak erabiltzea.

Irakaslea profesional bat da, eta erantzukizun handiena du harreman on baten eraketan (Nordahl et al 2005). Orokorrean gurasoenganako jarrera positiboa eduki behar du, eta ikasleentzako baliabide modura ikusi behar ditu. Garrantzitsua da arreta etorkizunean jartzea eta ez hainbeste iraganean, batez ere kontuan izanik gurasoek seme-alabengan dituzten sentimenduak. Bestalde gurasoei boterea eman behar zaie, eta azpimarratu haien lanak duen garrantzia.

Ericssoned (2000) "rand zone" hitzak erabiltzen ditu familia eta eskolaren arteko harremanak izendatzeko. "Rand zone" oso lotura argia ez duen arloa da. "Rand zone"ren adibide bat izan liteke irakasleek esku hartu ahal izatea familien hezteko moduan, ohituretan, eta abarrean.

Beste "rand zone" bat litzateke gurasoek eskola-hornikuntza edo jarduerak ordaindu behar izatea, edo gurasoek eragin ahal izatea eskolaren zenbait gaitan, hala nola, diziplinan, zigorretan, edo hezkuntzan orokorrean.

Familia eta eskolaren arteko harreman onak sortzea bientzat onuragarria izango da. Irakasleentzat laguntza handia izango da ikasle bakoitzaren egunerokoa eta egoera berezia ulertzeko. (Thomson et al 2004) Familia eta eskolaren arteko harreman onak garatuz, irakasleek itxaropen errealagoak eraiki ditzakete ikasle bakoitzarengan, eta aldi berean familiei ere itxaropen koherenteagoak eta errealagoak izaten lagundu ahal die.

Gurasoek ere erantzukizun argi bat dute familia eta eskolaren arteko harremanetan. (Chripspeels 1996; Vilchez 2004). Eskolarekiko jarrerak landu behar dituzte eta euren eskola-esperientziarekin eta emaitza akademikoekin loturiko emozioak baliatu behar dituzte. Gehiago konprometitu behar dute eskolaren funtzionamenduan, eta eskolak proposatzen dituen ekintzetan. Familiek eta irakasleek, batera, neska-mutilenganako itxaropen berak sortu behar dituzte. Ulertu behar dugu familiak eta eskolak helburu berak dituztela: eskolako errendimendua eta arrakasta hobetzea.

## **Familia eta eskolaren arteko harremana hobetzeko estrategiak: funtsezko GOLDEN urratsak**

Haurren eskola- garapeneko bost gai garrantzitsuenen artean "Golden 5" proiektuak familia eta eskolaren arteko harremana aukeratu du. Marko teorikoak dio familia eta eskolaren arteko harreman on batek eragin positiboa izango duela neska-mutilen garapenean eta hazkuntzan, aldi berean biengan, familiarengan eta eskolarengan, izango duela eragin positiboa. Familia eta eskolaren arteko harreman on bat sortzea jarrera eta pentsaera sistemikoa lantzean datza. Harreman on horiek eratzeko erantzukizun handiena alderdi profesionalari dagokio, eskolari eta irakasleei. Hala ere, familiak ere lan egin behar du, eskolan eta heziketan dituen itxaropen eta jarrerekin, eta bere sentipen eta emozioez baliatuz. "Badirudi "eskolako estrategia globalen" bidezko ikuspuntu sistemiko bat estrategia indibidualak baino eraginkorragoa dela.

Eskolan esperientzia txarrak izan dituzten gurasoek, edo eskola-porrota duten seme-alaben gurasoek askotan uste dute eskolarekiko harremanak errudun sentiarazten dituela; askotan pentsa dezakete irakasleek seme-alaben eskola-arrakasta ezaren erruduntzat jotzen dituztela gurasoak zein ikasleak. Agintetik kanpo daudela uste dute eta eragin gutxi dutela. Irakasleriak, beraz, estrategiak izan behar ditu gurasoei boterea emateko; jarrera positiboa izan behar dute guraso guztiekiko, eta ikasleentzako baliabide modura ikusi behar dituzte. Irakasleentzat oso garrantzitsua da

inguruko pertsona helduak, giro onean, elkarlanean ikustea, eta horrek eskola-porrotaren arriskua eta eskolaz kanpoko arazoak gutxituko ditu.

Irakasleentzat ere, garrantzikoa da kontuan izatea beste kultura bateko gurasoek arreta handiagoa eskatzen dutela, eta oso garrantzitsua dela harreman on bat sortzeko eta guraso-taldeetan sartu ahal izateko itxaropena sortzea.

Familia eta eskolaren arteko harremanetan, zenbaitetan, zehaztugabeko itxaropenak daude. Beraz, garrantzitsua izango da sistema eta estrategiak sortzea gurasoen eta irakasleen erantzukizun eta betebeharren arloak zein diren argitu ahal izateko.

Berdintasun-harreman baten eragina aipatutako teoria eta ikerketekin bat etorriko da, eta mesedegarria izango da:

- Arrakasta akademikoetarako.
- Autoestimurako
- Osasun psikologikorako.
- Ikasleen eskola-motibaziorako.
- Eskola-doikuntzarako.
- Luzera, ezarritako helburuak lortzeko eta etorkizunekoak planifikatzeko.
- Ikasleak eskolan gustura sentitzeko.

#### *Funtsezko urratsak:*

- *Aldiro gurasoei deitzea berri onak emateko. "Harreman berezien" liburua ere sor liteke bost "Golden" ikasleentzat.*
- *Ziurtatzea "golden" haurren gurasoak bileretara joaten direla, arreta berezia eskainiz (mezu, telefono-dei edo seme-alaben bidez gogoratuz)*
- *Neska-mutilen familienganako eta eskolaz kanpoko bizitzarekiko interesa azaltzea, galderak eginez.*
- *"Familia-curriculum", bere osotasuna kontuan hartuta, ikasgelan erabiltzea, edo aukeraturiko "Golden" hurrekin. ( Ikusi eranskina)*
- *Ikasgelan familia-taldeak antolatzea (eskolaz kanpo, hilabete batez, seme-alabekin batera jarduerak egingo dituzten guraso-taldeak)*
- *Gurasoen, seme-alaben eta irakasleen arteko ikasketa-hitzarmenak egin, erantzukizuna eta hobekuntza helburutzat hartuz (elkarrizketa-eredua ikusi).*



- *Aita eta amen bankua* sortu: gurasoak ikasgelarekin batera lan egitera gonbidatzean datza, "datu-banku" batean esperientzia interesgarri bat idatziz, adibidez, errezetaren bat, lan bat, bidaia bat, ezagupenak, trebetasunak, etab. Gurasoen trebetasuna edo lankidetzeta jasota geratzen da, eta irakasleriak guztiontzako modurik egokienean antolatuko du.

## Aipamenak

Apter, Stephen (1982) *Troubled children/Troubled systems*: Pergamon General Psychology Series,

Berg, Jens Petter: *Utdanning* 9/2002 side 84 og 86

Birkemo, AsbjOrn 2002: *Laeringsmilj0 og utvikling*, UNIPUB

B0, Ingrid (2002) - *Begrepet: Indre vilkár for foreldreskap*.

Coleman, Peter and Collinge J (1993): *Seeking the levers of change: Participant attitudes and school improvement*. In: *School effectiveness and school improvement* 4 : 1

Coleman, Peter and Collinge J (1996): *Learning together: The student/parent/teacher triad*. In: *School effectiveness and school improvement*, Volum 7, page 297-323.

Crispeels, J (1996): *Effective Schools and Home -School-Community partnership Roles : A framework for parent involvement*. *School Effectiveness and School Improvement*, Vol 7 pp. 297-323.

Cohen, S (1974), *Family reactions to the handicapped child*. New York: Hunter College of the City, University of New York.

Desforges, Charles (2205): *Exeter University : Verdens gang* 3/1 page 53.

Epstein, Joyce L (2001): *School, family and Community Partnerships: Preparing Educaters and Improving Schools*, Westview Press.

Ericson, Kjersti and Larsen, Gun : ( 2000) *Skolebarn og skoleforeldre*, Pax forlag.

FUG (2005) *Broer mellom hjem og skole- Handbok om samarbeid mellom minoritesspraklige foreldre og skole*.

Norsk offentlig utredning (NOU) 1995: kap. 12

Norges almenntvitskaplige forskningsråd (1992): Ung i Norge

Nordahl, Thomas (2000): Samarbeid mellom hjem og skole- en kartleggingsundersøkelse

Nordahl, Thomas (2006): Skolelederen 01, page 6-7.

Nordahl, Sørli, Manger, Tveit (2005): Atferdsproblemer blant barn og unge, Fagbokforlaget.

NOVA (2000): Rapport nr 8

NOVA (2002): Rapport nr 13

OECD (1997): "Parents as partners in school"

Parra, Oliva and Sánchez, I (2002): Parents and peers influences on emotional adjustment during adolescence. Presented in: VIII Biennial Congress of the European Association for Research on Adolescence. Oxford, 2002.

Siles, C (2003) La colaboración de los padres con la escuela. In Padres y Maestros, 279 pp 10-14.

Stortingsmelding 14,1997-98 Kap. 4)

Thomson G, Warron S, Carter L (2004): It's not my fault. Predicting High School Teachers who blame blame parents and students for low achievement. In: The High School Journal: 87, 3, pp 5-14.

Vilchez. L.F (2004): Expectativas de los padres y las expectativas de los profesores, In: Padres y Maestros, 254 pp 22-25.

Wentzel, K (1998): Social Relationships and motivation in middle school. The role of parents, teachers and peers, Journal of educational Psychology, 90, 2, pp 202-209

Winqvist, C, (1999). Participación de los padres en las escuelas. ERIC DIGEST.

#### Familia-curriculum:

1. Eskolari, irakasleei, eta orokorrean hezkuntzari buruz ondo hitz egitea.
2. Gizarteari buruzko eztabaida-gai eta ikuspuntu desberdinak zabaltzea ikasleen artean.
3. Eskolak ematen dituen mezuetan eta antolatzen dituen lankidetzajardueretan arreta jartzea eta haiei buruz ondo hitz egitea.
4. Eskolako jarduera-bankuan zure izena jartzea.
5. Familiak beren seme-alabentzako jokaera-eredu ona direla ziurtatzea.
6. Neska-mutilen trebetasunekiko interesa azaltzea, eskolako lanetan laguntzea, ikasketa-giroa sustatzea eta eskolako lanetan laguntzeko etxean lanerako leku on bat sortzea.
7. Ziurtatzea haurrek beti irakurtzeko liburuak dituztela, eta eguneroko lanean erabiltzen dituztela
8. Elikadura eta lo-orduak nahikoak direla ziurtatzea.

## ALDAGAI HAUETAN ERAGITEN DU:

- **Argitasuna/gardentasuna:** arauen argitasunari, itxaropenei, portaerari, eskolan bakoitzak duen eginkizunari dagokie. Argi adierazita badago zer espero den, zer dagoen ondo, zer dagoen gaizki, irakaslea ikasgelako lehen ereduia izanik, ikasleak irakaslearen portaera aurrez jakiteko gai izatea espero da.
- **Irakaskuntza:** irakaskuntza- eta didaktika-teknikak egokiak direla ziurtatzen da. Motibazioan oinarritzen dira, adibide ugari emanez, animatuz, galdetuz, eta ikasleari pentsaraziz.
- **Antolaketa:** ikastaldea ondo antolatuta dago, kudeaketa egokiaz, egituratua, itxaropen argiezin, eta behar duenak laguntza du.

## FUNTSEZKO URRATSAK:

- 1.1. Fluxua eta jarraipena:** Portaera batek ezin du ikasgaia edo lana eten, portaera oker hori kudeatzen eta aldi berean klasea ematen jarraitu behar da. Hona hemen erabili daitezkeen zenbait adibide: pertsonari begietara begiratzea, hitz-gako bat adieraztea, gatazka maila baxuan konpontzea, eskuz adieraztea, kontaktu fisikoa erabiltzea, hurbiltzea, etab.
- 1.2. Arreta:** arreta jartzea eta ikaskide guztien aurrean jokaera onak, eta errepikatzea nahi dugun portaera eta jarrerak goraiatzea.
- 1.3. Proaktibotasuna:** arazoak maila baxuan konpontzea (bakarka, ahopean, ikaslearengandik hurbil, eskola hasi baino lehen edo ondoren)
- 1.4. Progresioa:** taldearen arreta erakartzeko, portaera kudeatzeko sistema bat eratzea, ahozkoak ez diren kodeak erabiliz (adibidez, eskuak altxatzea); espero den portaeraren berri ematea, harremanetarako eredu bat jarraituz (ikasleengana hurbilduz, ahopean hitz eginez, ...)
- 1.5. Aurrea hartzea:** ikasgelan gerta daitekeenari buruz pentsatzea, eta adi egotea.
- 1.6. Erreakzionatu eta moldatzea:** eskola bukatu ondoren ikaslearekin hitz egitea eta hurrengo saion zer egin adostu, ordezko portaera desberdinei buruz hitz egin eta portaera okerrak jarraitzen badu, irakaslearen erreakzio-ondorio erlazioaren berri ematea.
- 1.7. Matching-doitzen, portaera gatazkatsuen aurrean arrazoizko erreakzioa ziurtatzea. Garrantzitsua da gatazka ez areagotzea, eta hura hasieran bizia balitz, maila jaitsi, irribarre egin, eskerrak eman, eta begietara begiratzea.**
- 1.8. Sinkronizazioa:** ahalik eta lasterren portaera-arazoari heltzea.
- 1.9. Momentum:** jarduerak eta aginduak sekuentzia naturaletan eta segidakoetan antolatzen direla ziurtatzea. Jarduerak ez badute segida natural bat jarraitzen, kontrola galtzea errazagoa da, oharkabea, baldintzak falta direlako, etab.
- 1.10. Finkatu eta proiektatzea:** Urrats honetan, saio bat bukatzean dagoenean, hura finkatu eta hurrengo ikasgaia proiektatzeko denbora antolatzen da. Ikasleentzat garrantzitsua da jakitea zer egin den eta zer ikasi den, zer egon den ondo eta zer ikasiko den hurrengo ikasgaietan.
- 1.11. Ohiturak aldatuz:** Ikasleen edo ikasle eta irakasleen arteko jokamoldeak aztertzea eta egunerokotik at dagoen zerbait edo espero ez den zerbait egitea.
- 1.12. Gogoratu:** Mezu guztiak arbelean idaztea (Ziurtatzea uneoro zer egin behar duten jakin dezaketela, idatziz argi azaldu zaielako).



## 2.- HARREMANAK SORTZEN:

### ALDAGAI HAUETAN ERAGITEN DU:

- **Hurbiltasuna:** Komunikazio ziurra, irekia, ikaslearen gizarte-bizitza eta horrekin zerikusia duten eguneroko alderdiak.
- **Gatazkak:** Ikasleekin desadostasunak daudenean arazoek koponketa lantzen da, eta horri buruz hitz egiten dugu.
- **Laguntza emozionala eta konfiantza:** Laguntza emozionala.
- **Laguntza akademikoa:** Laguntza akademikoa.
- **Itxaropenak:** Itxaropen handiak ikasleria osoarengan.
- **Mendekotasuna:** Independentzia eta autonomia.
- **Iraunkortasuna:** Ikasleekiko harremanetan iragarri daitekeena, zuzena, denekin zerikusia duena, eta emozionalki egonkorra.
- **Umorea:** Umorea erabiltzen dut, elkarrekin barre egiten dugu, ez da ironia erabiltzen.

### FUNTSEZKO URRATSAK:

- 2.1. **Izena esan:** haurrari hitz egin behar diogunean, eta ziurtatu behar dugu ikasgai bakoitzean gutxienez behin haurrari begiratzen diogula. ( Behatzea, hurbil egotea, goraiatzea, laguntzea, etab
- 2.2. **Atzeraelikadura:** Ikasleei atzeraelikadura positiboa eta eraikitzailea ematea, eta aukera eta portaera positibotara bideratzea.
- 2.3. **Urrezko unea:** Neska edo mutilarenganako interesa azaltzea, eta eskolaz kanpoko gaiei buruz hitz egitea.
- 2.4. **Zurrunmurrak:** Ikasleei modu onean hitz egitea beste heldu edo haur batzuk aurrean daudenean.
- 2.5. **Onarpen positiboa:** Irribarre egitea, eta onarpen positiboa azaltzea ikasle batekin topo egiten duzunean ikasgelatik kanpo.
- 2.6. Arazoak daudenean, **ikasleen ikuspuntutik** ikusten saiatzea eta entzuteko prest egotea..
- 2.7. **Ikasgelan umorea erabiltzea.**
- 2.8. **Gizarte-profila erabiltzea:** Ikasleen gaitasunak, beren trebetasunak, beren lan ona edo portaera onak ikastalde osoarentzako erreferentziatzat erabiltzea.
- 2.9. **Hutsetik hastearren teknika erabiltzea:** egun bakoitza eta ikasgai bakoitza aukera berri bat da.
- 2.10. Haurrak esandakoak **gogoratzea**, errepikatzea, eta interesa azaltzea.
- 2.11. **Irakasleriaren aurkezpena:** Irakasleak bere buruari buruz hitz egiten du, bere bizitzaz, eskarmentuaz,

## ALDAGAI HAUETAN ERAGITEN DU

- **Identitatea eta partaidetza:** Ikastaldea indartzea; gurasoekin eta beste irakasleekin ondo hitz egiten da ikasleei buruz.
- **Lankidetzak:** Berdinen arteko lankidetzak sustatzen da, gelan esertzeko moduari zein ikasgaiei dagokienez.
- **Lehiarik EZ:** Norbanakoaren aurrerapenak alderatzen dira, eta ahaleginak azken emaitzak bezain garrantzitsuak dira.
- **Eragina:** Ikasleei entzun egiten zaie, erabakiak hartzen eta taldean gatazkak konpontzen laguntzen zaie.
- **Ongizatea:** Seguru daude; konfiantza dute; ez dago bullying-ik, eta giro on eta atseginean daude.
- **Argitasuna:** argitasuna arauetan, ohikerietan, etab.
- **Ingurune fisikoa:** Ingurune fisikoa egokia da, haiek sortua, apaindua eta atsegina..

### FUNTSEZKO URRATSAK:

- 3.1. **Ikasleria ezagutzea**, bakoitza elkarriketatzuz, hainbat jardueraren bidez, korroen unea, gizarte bingoak, etb. (Materialak: i, 2)
- 3.2. Ikastaldean **besteekiko harremanei eta jokaerari buruzko 3-5 arau positibo lantzea.**
- 3.3. **Gizarte-sustapen sistematikoa eta ebaluazioa** (zerekin daude pozik irakaslea edota ikasleak?, zertan dira trebeak?)
- 3.4. **Autonomia sustatzea**, ikasteko estrategiak eta ikastaldearen antolaketa azpimarratuz.
- 3.5. **Berdinen arteko tutoretza:** ikasleen arteko laguntza akademikoa.
- 3.6. Eguneroko ikasgaiaren ondoren, **ebaluazio positibo sistematikoak.**
- 3.7. **Lankidetzak:** Elkarrekin ekintzak egitea (egitasmoak, artea, ikuskizunak, etb.)
- 3.8. Norbanakoarentzako edota ikastaldearentzako **gure helburua aurkitzea**
- 3.9. **Esanguratsua: Ikasle onak gainerakoentzako eredu gisa erabiltzea.**
- 3.10. **"...-en eguna":** Ikaslea erakar gunea denean (joko bat, familiaren parodia bat, etxeko sekretu bat ekarriz)
- 3.11. **"Isilpeko laguna" izeneko jarduera.** Ikasle bakoitzak "isilpeko" lagun bat izango du; beraz, laguntza eta sostengua eman beharko dio, baina hura konturatu gabe, "isilpeko" laguna da eta. Astearen amaieran partekatu egiten da eta bakoitzak esaten du zein den bere ustez "isilpeko" laguna, "nabaritu ez diren" laguntza-keinu gehien egin dituenak irabaziko du.
- 3.12. **Ikasketa kooperatiboko estrategiak erabiltzea.** (Johnson & Johnson)

konpontzeko denbora gordetzea eskola-saio bakoitzean.

**3.14. Gure zirrarak:** bakoitza bere zirrarak, eskaerak, beharrak azaltzeko gai izatea, eta gizarte-giroak hori egiten utz diezaiola.

**3.15. Elkartasun-jarduera batean parte hartzea** ( norbaiti laguntza ematea)

**3.16. Denen artean ikasgela apaintzea.**

**3.17. Ikasgela antolatzea** (ikasmahaiak, loreak, marrazkiak, etab.)

## ALDAGAI HUETAN ERAGITEN DU

- **Oinarriak:** ikasleei ikasketa doitua errazteko oinarriak.
- **Inklusiboasunari arreta:** inklusibotasunari arreta, ikasgelako aniztasunari arreta ingurune positibo batetik.
- **Aukerak:** Aukerak eskaintzen dira, ikasketei eta harremanei ekiteko modu desberdinak.
- **Balioestea:** beren ikasketa-prozesuan, ikasleak balioetsi eta bultzatzeko gaitasuna.
- **Indibidualizazioa:** ikasle bakoitzaren beharrei eta banakoen arteko ezberdintasunei arreta jartzea.
- **Ekarpena:** ikasleak beren burua hobe dezaten bultzatzea; ikasleak autoebaluazioa egitera, aurre egiteko, gainditzeko, eta beren beharrei eta itxaropenei erreparatzeko estrategiak ikastera bultzatzen ditu.
- **Lankidetzaz:** Zein neurritan lantzen ari da ikasle bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokitze-prozesua gurasoen eta ikastetxearen laguntzarekin?.

### FUNTSEZKO URRATSAK:

- 4.1. **Aukeratzea:** Ikasleak gai izango dira hainbat zeregin, maila eta lan-estrategien artean aukeratzeko. Bost “golden” ikasleei egin ditzaketen zereginak ematea.
- 4.2. **Boligrafo berdea:** liburuak eta probak zuzentzeko boligrafo gorriaren ordez berdea erabiltzea, ondo dagoenari, hobetu daitekeenari, eta abarri erreparatuz.
- 4.3. **Ikasleen ebaluazio pribatua,** ez beste ikasle edo irakasle batzuen aurrean. Hurrekin bakarka hitz egitea, nola hobetu dezakeen azalduz.
- 4.4. Hezkuntza-prozesuan autonomia hobetzeko **ikasketa-estrategietan jartzea arreta.**
- 4.5. **Interesa:** eskolak planifikatzeko orduan, **ikasleen interesak** eta beren esperientziak erabiltzea.
- 4.6. **Hezkuntza berezia** ikasgelan bertan edo berari lotuta ematen da.
- 4.7. **Beraien materialak erabiliz.**
- 4.8. **Ikasleak autoebaluatzeko sistemak erabiliz.**
- 4.9. **Ikasleak baliabide modura erabiltzea:** berdinen, ikasleen arteko laguntza.
- 4.10. **Golden ikasleei laguntza gehiago ematea, eta gai akademikoetan arreta gehiago jartzea.**
- 4.11. **Lan-planak erabiltzea,** banakako ikasketa modura .

**ALDAGAI HAUETAN ERAGITEN DU:**

- **Jarrerak:** Familiarekin lankidetzan jardutearen aldeko jarrera.
- **Informazioa:** Familia eta eskolaren arteko datu-trukaketa.
- **Elkarrizketa:** Irakasleen eta familiaren arteko norabide bikoitzeko komunikazioa.
- **Partaidetza:** Familiak eskolaren funtzionamenduan parte hartzen du.
- **Borondatezkotasuna:** Familiarekiko harremana borondatean oinarritzen da, eta ez kanpotik ezarritako betebeharrean.

**FUNTSEZKO URRATSAK:**

5.1. **Aldiro harremanak izatea familiarekin**, mezu positiboak emanez. (telefonoa erabiltzea edo bestela, horren ordez, agendan ohar berezi bat idaztea 5golden ikasleentzat)

5.2. Elkarrizketa edo bileretan, **gurasoei galdetzea** beren seme-alabak autonomoak diren eta hobetzen ari diren.

5.3. **Informazioa:** Honako gai hauei buruzko galdeketa erabiltzea: motibazioa, autoestimua, aldaketa akademikoak, itxaropenak, gizarte aldaketak beren seme-alabengan dituzten itxaropenak hobetzeko.

5.4. **Ikaslearen, irakaslearen eta gurasoen arteko “ikasketa-kontratuak”, arreta guztia erantzukizunean eta hobekuntzan jarriz.**

5.5. **5 Golden ikasleen gurasoak**, arreta berezia ematen zaienean (telefono deiak, mezu bereziak haurren bidez, ...) bileretara joaten diren ala ez ikustea.

5.6. **Familiaz eta egiten dutenaz interesa azaltzea**, haurrei galderak eginez eta interesa azalduz.

5.7. **Ikasgelako gurasoekin eta 5 golden ikasleekin “familia-curriculum” osotasun gisa erabiltzea.**

5.8. **“Jardunaldi irekien eguna”**. Ikasle eta familien eguna, haiek ikasleek eginiko lana, ikasmahaiak eta ikasgela ikus ditzaten.

5.9. **Ikasgelan familia-taldeak antolatzea** (hilean behin arratsaldez/gauez guraso-taldearen eta ikastaldearen arteko jarduerak)

5.10. **Ikasgelan guraso-banku bat sortzea**, gurasoek beren ekarpena egin dezaten (laguntza- zaintza-garraiartzea- ikasgela lanerako eratzea- interes bereziei buruzko hitzaldiak ikasgelan, hala nola bidaiak, etab.)

5.11. **Elkarrizketa irakaslearekin, ikaslearekin eta gurasoekin ikuspegi positibo bat erabiliz.**

Familiaren curriculum:

1. *Eskolari, irakasleari et orokorrean heziketari buruz ondo hitz egitea.*
2. *Gazteen artean, eztabaidagai eta gizarteari buruzko ikuspegi berriak sortzea.*
3. *Arreta jartzea eta eskolak bidaltzen dituen mezuei eta bultzatzen dituen jardueri buruz modu positiboan hitz egitea*
4. *Eskolako ekintza-bankuan zure izena ematea.*
5. *Familiak beren seme-alabentzako eredu onak direla ziurtatzea.*
6. *Haurrek dituzten trebetasunekiko interesa azaltzea, eta eskolako lanetan laguntzea, ikasketa-giroa sustatzea, eta etxean lanerako leku bat sortzea eskolako lanekin laguntzeko.*
7. *Haurrek beti irakurtzeko liburuak dituztela eta eguneroko lanean erabiltzen dituztela ziurtatzea.*
8. *Elikadura eta lo-orduak nahikoak direla ziurtatzea.*
- 9.